

BATZGROUP

Informazio Ez-finantzarioaren
Egoera-orria

ERANTZUKIZUN
KORPORATIBOAREN
TXOSTENA
2019

2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion BATZ S. Koop eta haren menpeko sozietateen (aurrerantzean, Taldea) Informazio Ez-finantzarioaren Egoera-orri Bateratua, Taldearen Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte dena.

INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA-ORRIA

2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion BATZ S. Koop eta haren menpeko sozietateen (aurrerantzean, Taldea) Informazio Ez-finantzarioaren Egoera-orri Bateratua, Taldearen Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte dena.

Dokumentu honek 2018ko abenduaren 28ko Informazio Ez-finantzarioari eta Dibertsitateari buruzko Legeak eskatutako informazioa jasotzen du eta honako hauek zehazten ditu: BATZ Group-eko arriskuen kudeaketaren eta negozio-ereduaren funtsezko alderdiak, iraunkortasun-planak, ingurumenari, gizarteari eta lanari buruzko gaiak, giza eskubideak errespetatzeko eta bultzatzeko politika, ustelkeria eta eroskeriaren prebentzioarekin zerikusia duten gaiak, eta gizartearekiko eta interes-taldeekiko harremanaren kudeaketa.

Horrez gain, dokumentuak honako alderdiak barne hartzen ditu: Taldearen negozio-ereduaren laburpen bat, aurreko kontuei eta hartutako neurriei buruzko politiken deskribapena, politika horien emaitzak, Taldearen jarduerari lotutako eta gai horiekin zerikusia duten arrisku nagusiak, arrisku horien kudeaketa eta emaitza ez-finantzarioen funtsezko adierazleak.

Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria Global Reporting Initiative nazioarteko estandarraren bertsio Esentzialaren eta haren printzipio guztien arabera idatzi da, 2019ko Informazio Ez-finantzarioari buruzko Legeak gomendatutako jakinarazpen-esparrua. Gainera, Albacus S.L. enpresa independenteak egiaztatu du

EDUKIA

1. GURE NEGOZIO EREDUA	4
1.1 – Nor gara	5
1.2 – Antolaketa-egitura	6
2. GURE ERRONKAK	8
3. NOLA EGITEN DUGUN	9
3.1 – Dibertsifikazioa	9
3.2 – Helburuak eta estrategiak	11
3.3 – Arriskuak eta oportunitateak	18
4. MATERIALITATEA	20
5. GURE INTERES TALDEEKIN KONPROMETITUTA	21
6. GURE KUDEAKETA SISTEMA	22
7. PROPOSAMEN IRAUNKORRA	24
8. INGURUMEN GAIAK	25
8.1 – Ingurunearekiko errespetu-espritua sustatu	25
8.2 – Gure ingurumen eragina	27
9. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIAK	32
9.1 – Pertsonen kudeaketa-eredua	32
9.2 – Plantillaren profila	39
9.3 – Langile-harremanak	40
9.4 – Barne-komunikazioaren mapa	40
10. GIZA ESKUBIDEAK	41
10.1 – Gure jokabide-kodea	41
10.2 – BATZ osatzen dugun pertsona guztien portaera gidatzen duten printzipioak	42
11. USTELKERIA ETA EROSKERIA	45
12. GIZARTEA	47
12.1 – Gure inguruan aberastasuna sortuz	47
12.2 – Dibulgazioa, balioa sortzeko motorra	48
12.3 – Etorkizuneko profesionalek alde apustu eginez	49
12.4 – Hornitzaileen garapena	50
12.5 – Informazio fiskala	51
ERANSKINA: 11/2018 legearen eta GRI erreferentzia-esparruaren arteko trazabilitatea	52

1. GURE NEGOZIO EREDUA

BATZ gara, automobilgintza sektoreko produktu eta zerbitzuen mundu mailako hornitzailea. 1963an Igorren sortua (bertan dago gure egoitza), industria talde sendoa bilakatu gara, gure profesionalen konpromisoa eta bezeroarekiko orientazioari esker.

Jarduera nagusia automobilgintzaren sektorean garatzen dugu; zehazki, ekipo-ondasunen eta serieko ekoizpenaren alorretan. Horrela, trokelak diseinatu eta fabrikatzen ditugu, egiturazko zein azaleko piezetarako, produktuaren diseinu kontzeptualetik doitzeraino doan zerbitzu integrala eskainiz.

Era berean, automobilgintza sektoreko OEM nagusiek aintzat hartzen duten enpresa kualifikatua gara, kontrol mekaniko eta mekatronikorako sistemak diseinatzeko eta fabrikatzeko dituen, segurtasun, arintze, ergonomiko eta efizientzia atributoak eskaintzen dituztenak.

1.600 profesional inguruk osatzen dugu BATZ Group eta 14 ekoizpen-planta eta bulego ditugu mundu osoan.

Horrenbestez, bezeroetatik gertu gaude beti eta euren egungo eta etorkizuneko erronkak betetzeko laguntza eman diezaiekegu.

Gure nortasuna

BATZ Arratiako bailaran kokatutako kooperatiba bat da, nazioarteko proiektzioa duena eta, mende erdi baino gehiagoz, hedapena eta izaera globala bere ingurunearekiko errotze eta

konpromisoarekin ederki bateratzen jakin duena.

BATZGROUP

Gure misioa. Zer gara

BATZ automobilgintzarako premium produktu eta zerbitzuen mundu-mailako hornitzailea da. Balio erantsi handiko proposamen berritzaileaz eta bezeroekiko konpromiso pertsonala oinarri, modu iraunkor eta errentagarrian hazten ari gara trebakuntza, teknologia eta serieko fabrikazioa funtsezkoak diren industrietan.

Gure ikuspegia. Zer izan nahi dugu

Automobilgintzako premium hornitzaile gisa gure bezeroen arrakastari lagundu, eta, aldi berean, gure inguruneko garapen sozioekonomikoari ekarpena egin.

GURE BALIOAK. GUZTIAREN OINARRI



1.1 NOR GARA

BATZ Group-ek automobilgintza sektorean jarduten du). Bertan ondo bereizitako bi negozio ditu.

BATZ TOOLING



- Ibilgailuak konformatzeko ekipamendu-ondasunak diseinatu, fabrikatu eta doitzen ditugu.
- Kooperatibaren jatorrizko negozioa izanik, konformazio-teknologia ezberdinei buruzko ezaguera eta esperientzia baliatuta, ibilgailuetako materialak berritzen lan egiten dugu, gaur egun, arinak eta seguruak direnak.


BATZ AUTOMOTIVE SYSTEMS



- 30 urtez geroztik, automobilgintzako eraikitzailer nagusientzako produktu sorta zabala diseinatu eta ekoizten dugu.
- Gehienak, garapen-ingeniaritzako produktuak dira, funtsezko eginkizun hauekin:
 - Egitura arintzea, konpositeen teknologiak oinarri hartuta.
 - Eraginkortasun aerodinamikoko funtzioak, emisioak murrizteko.
 - Mekatronika.

1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2019

BATZ Groupek printzipio kooperatiboetan oinarritutako enpresa-ereduaren alde egin du, konpainiaren balio bereizle gisa. Jarduteko printzipio horiek korporazio-esparruan islatzen dira, taldearen kudeaketaren nortasun-ezaugarri batzuen bidez. Ezaugarri horiek negozio bakoitzaren autonomia eta erantzukizuna arau komun batzuk ezartzearekin eta erabaki partekatuak hartzearekin uztartzen dituzte. Gure antolaketa-eredua, funtsean, arestian deskribatu negozio-unitateetan egituratuta dago, negozioaren, produktuaren, prozesuen eta proiektu estrategikoen garapenean oinarritzen direnak, eta sozietate-partaidetzaren eskema hau du:




- 2019ko urrian, Araluce SLU elkartea likidatzeko prozesuari ekin zitzaion, eta, txosten hau egiteko egunean, prozesu hori abian dago oraindik.
- Abenduaren 31n, BATZ Brasil saldu zen, bere jardura BATZ Groupen barruan estrategikoa ez den sektore batera bideratuta dagoelako.
- Eta, finantza-egoeretan egin den bezala, oinarriaren homogeneizazioa eta txosten osoan aurkezten den informazioaren konparagarritasuna direla eta, bi elkarte horien aurreko ekitaldiko erreferentziak ezabatu egin dira.



1.2 ANTOLAKETA-EGITURA 2019

Era berean, BATZ Groupek bere sozietate- eta negozio-egiturari egokitutako zuzendaritza-organoak ditu. Horien bitartez, konpainiaren funtsezko harremanak eta erabaki estrategikoak batera ditzake, hurrengo organigramak erakusten duen moduan.



2. GURE ERRONKAK

Automobilgintzaren joera berriak, hala nola ibilgailuaren digitalizazioa, erabilera partekatua eta elektrifikazioa, industria horren egungo bilakaera baldintzatzen eta agertoki berriak sorrarazten ari dira, hasiera batean ezezagunak izan daitezkeen agertokiak, hain zuzen. Halaber, sektore hain orokor batean lan egiten dugun aldetik, oso adi egon behar dugu nazioarteko mugimendu ekonomiko eta politikoetara; izan ere, kanbio-tasak edo lehengaien prezioa baldintzatu edo protekzionismo handiagoa eragin dezakete

EZAGUTZEN DUGUN SEKTORE BATEN ALDAKETA



Kotxearen erabilera berriak



OEM arteko aliantzak



Marko arautzailea eztabaidan



Testuinguru geopolitikoa zalantzarria



Bat-bateko aktore berriak: Apple, Google, Uber...

Eta mugikortasun adimendun, partekatu, eraginkor eta jasangarriaren testuinguru berri honetan, automobilgintzaren sektorea funtsezko lau lehentasun estrategikoren inguruan ibili da lanean azken urteetan zehar.



Iturria. Espainiako Automobilgintza eta Mugikortasunaren Plataforma Teknologikoa - M2F

Lehentasun estrategiko horietatik, BATZen honako lan-ildoak ezarri ditugu, gure ezaguera eta egin dezakegun ekarpena kontuan hartuta: **arintzea, aerodinamika aktiboa eta fabrikazio aurreratua.**

Arintzeari dagokionez, material berrien (aluminioa eta plastiko indartua, kasu) eta teknologia berrien erabilerari esker, bezeroen ibilgailuen pisua nabarmen murriztea lortzen ari gara.

Bestalde, ibilgailuaren efizientzia handiagoaren beharrari ere erantzuten dio BATZ-ek aerodinamika aktiboko sistemak garatuz, zeintzuk airearekiko erresistentzia murriztea eta, beraz, kontsumoa murriztea ahalbidetzen duten.

Azkenik, fabrikazio aurreratuaren esparruan, Smart Factory kontzeptuak inplementatzen ditugu ekoizpen-prozesu osoan zehar, gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea areagotuz

3. NOLA EGITEN DUGUN

3.1 DIBERTSIFIKAZIOA

Dibertsifikazioa, gure bazkideen garapena bultzatzeko eta balioa sortzeko oinarria

BATZ-en negozio-eredua dibertsifikazio geografikoan eta negozioaren, produktuaren eta bezeroen dibertsifikazioan oinarritzen da. Eredu horrek hazkunde iraunkorra bermatzen du, automobilgintza bezalako sektore dinamiko eta aldakorrari aurre egin ahal izateko.





Naturally global

Merkatu global batean gaude, zerbitzu global bat eskatzen duten bezeroekin. Behar horretatik jaio zen gure nazioartekotze-proiektua. Mexiko, Txekia, Txina eta Estatu Batuak. 2007az geroztik, mugetatik harago joateko apustu sendo eta jarraitua egin dugu eta automobilgintzako hornitzaile globala bilakatu gara. Ekoizpen lantegiak ditugu munduan zehar eta hainbat lankidetzakordio, industria-instalaziorik ez dugun herrialdeetan.



A U T O M O T I V E

BATZ
TORREÁ

BATZ
TOURNE

BATZ
DANGLUO

BATZ
CZECH

BATZ
INDICANA

BATZ
USA

BATZ
KUNSHAN


BATZ
CHENGDU

BATZ
GUANGZHOU

3.2 HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK

2019. urtean, gure sistemak eta prozesuak finkatzen jarraitu genuen, dibertsifikazioa, gure lehiakortasunaren hobekuntza eta bezeroarentzako zerbitzua indartzeko helburu argiarekin, eta, aldi berean, gero eta produktu-sorta zabalagoa eskaintzeko eta hornitzeko gaitasuna bultzatu genuen mundu-mailan, produktu, teknologia eta bezero anitzeko instalazioetara jota.

Helburu hori lortzeko, zeharkako prozesuak zehaztu genituen, negozio-arlo guztiak modu integralean eta koordinatuan inplikatzeko dituztenak, enpresa osatzen duten engranajeek osotasun gisa funtziona dezaten. Zeharkako kudeaketa hori honetan oinarritzen da:



Estrategia, gure kudeaketari koherentzia ematen dion engranajea

Berrikuntza, ziurgabetasunaren aurrean egokitze

Automobilgintzaren sektorea eraldaketa sakona jasaten ari da, eta agertoki berriak planteatzen ari dira. Alde batetik, digitalizazioak, besteak beste, auto autonomora hurbiltzen gaitu; negozio-eredu berriek auto partekatura; eta ingurumenarekiko konpromisoak ibilgailuaren elektrifikaziora. Aldaketa teknologikoak, eragile berriak sartzeko bidea ematen dutenak. Bestalde, beste faktore kritiko batzuen artean, aduana-zerga tentsioak eragiten dituzten aldaketa geopolitikoek industria horren paradigma aldatzen ari dira. Mugikortasun berrirako aldaketa disruptiboak, balio-kate osoan ziurgabetasuna eragiten ari direnak.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da estrategia eta posizionamendu argia izatea, industria honek bere produktuak, batzuetan, prozesuak eta are negozio-eredua ere egokitu ahal izateko, jasangarritasuna ziurtatuko badu. Etorkizuna digitalizazioan, eraginkortasunean eta lehiakortasunean datza, zalantzarik gabe.

Laburbilduta, honela definitu ditzakegu gure driver nagusiak:



Horietan lehenengoak eta funtsezkoak gure pertsonak ditu oinarri,

***PERTSONEN
GAIKUNTZA***

Gure ustez, gertatzen dena gertatzen dela ere, aurrekaririk gabeko tamaina eta eragina dituzten aldaketetara egokitzeko modurik onena prestakuntza eta, batez ere, jokabide jakin bat duten PERTSONAK edukitzea da. Hori dela eta, hainbat gaitasun garatzen ditugu Innovation as a Teamwork filosofia praktikan jartzeko. Filosofia hori gure industria-taldea definitzen duten balioetan oinarrituta dago.

Bestalde, gure driverrak merkatuari lotuta ere definitzen dira, hiru produktu-familiatan oinarrituta, zeinetan gure balio-ekarpena handiagoa den.

ARINTZERAKO TEKNOLOGIAK

*BiW-aren arintzea
(Body in White)*

Automobilgintzako joera guztiz funtsezkoa hiru ikerketa-ildotan oinarritzen dugu:

- Material metalikoak, altzairuak/aluminioa - hotza/beroa konformatzeko prozesuak.
- Material konpositeen garapena eta eraldaketa-prozesuak.
- Ibilgailu elektrikoetara bideratutako osagai espezifikoak, battery lid erakoak.

MEKATRONIKA

*Produktuaren
smartizazioan aurrera*

Mugikortasun berriaren erronkak, CASE akronimoak (Connected, Autonomous, Shared, Electric) oso ondo definitzen duenak, pixkanaka adimen-maila handiagoko produktuak beharko ditu. Body controls izenekoak dagoeneko komunikatzen dira jarraibideak irakurtzeko edota helarazteko, eta horretan aurrera egiten ari gara. 90eko hamarkadako pedalak seguruak egin ziren lehenik, gero arinak, eta orain adimendunak

AIRDRIVE

*Martxan dagoen
ibilgailua hobetzen*

BATZen ezarri berri den produktu-linea, martxan dagoen ibilgailuari eraginkortasuna ematen diona, bere aerodinamika hainbat abiadurataraz egokitzen baitu. Aerodinamika aktiboko sistemen bidez, airearen fluxua hainbat helbururekin kudeatzen dugu: errekuntzako ibilgailuetan, airea hartzeko; ibilgailu elektrikoetan, bateria hozteko; edota performancea bera (portaera, komunikazio-dinamika) eta zarata. Azken alderdi hori funtsezkoa da elektrikoetan, martxan hautemandako kalitatea ematen baitu.

FABRIKAZIO AURRERATUA

Hain zuzen ere, zeharkako driver honetan identifika ditzakegu berrikuntza teknologikoko erronkak eta eraldaketa digitaleko proiektuak. Ez gara irtenbide teknologikoez bakarrik ari, antolaketan eraldaketa kultural sakona ere barne hartzen baitu. Bada, gure pertsonen batasun honetatik sortzen da BATZen Digital Brains izendatzen duguna.

Driver honen oinarrian, estandarizazioa lantzen ari gara. Produktuaren estandarizazioa, baita ekipamendu-ondasunen diseinuan eta fabrikazioan ere, hala nola troketan, baina antolaketaren gainerako prozesuetan ere bai: kudeaketa-prozesuetatik bertatik eragiketetaraino, bezeroekiko harremana, proiektuen kudeaketa, etab.

Estandarizazio horretatik abiatuta, BATZen ardatz dugun funtsezko prozesua datuen analisia da; machine learning delakoaren bidez, erabakiak denbora errealean hartzeko era hobetzeko aukera emate digu, egungo eta etorkizuneko beharretara eskalatzeko moduko sistema bat ezartzeko eta prozesuen trazabilitatea hobetzeko, fluxu eraginkorrenak kontuan hartuta. Aldaketa honen beste abantaila eta bertute handi bat.

Zibersegurtasunaren, errealitate areagotuaren eta machine learning delakoaren inguruan baterako berrikuntzan

Ikuspegi teknologikotik, **ziberasegurtasunaren** eremuan, IT/OT integrazioa lantegian bertan lantzen jarraitzen dugu, barne-saretik bertatik enpresaren azpiegiturarako sarbide-kontrola ezartzean oinarrituta, **Keynetic solutions start up-arekin elkarlanean**.

Neosentec start up-arekin aldiz, **errealitate areagotua** teknologiak informazioa denbora errealean lortzeko eta trukatu ahal izateko prozesuak digitalizatzeko zer aukera ematen duen aztertzen ari gara, hartara, ONIRIX plataformaren bidez, gure trokelgintzaren eraginkortasuna handitzen lagun dezan.

Machine learning-a ezartzea prozesu bat da berez, bere irtenbide eta etapa teknologikoak behar dituena. Gure barne-taldeak **Skootik** start up-arekin duen lankidetzari esker heldu diogu erronka horri. Jatorria hainbat aplikaziotan duten datuen erabilera masibotik, DATA LAKE bat sortu dugu, eta, horri esker, egungo datutik ikasi eta iragarpen bat egiten duen eredu matematikoa garatu ahal izan dugu. Produktu bukatuaren stockak optimizatzean arrakastaz aplikatuta, bitarteko stocken kudeaketan, mantentze-lanetan eta abarretan aurrera egiten jarraitzen dugu.

Baterako berrikuntzaren bidez balioa sortzen

Testuinguru horretan, berrikuntza funtsezko eraldaketa-tresna da BATZen, eta, prospektibak abiapuntu, konpainiari aukera ematen dio etorkizuneko agertokiak eraikitzeko, ekosistemako beste eragile batzuekin eredu irekian eta lankidetzan jardunda. Zalantza-zakoak izan arren, epe ertain eta luzera negozioren ikuspegi partekatua errazten duten egoerak eztabaidatzea eta ondoren erabakiak hartzea ahalbidetzen dute. Berrikuntza-eredu horrek, eraldaketa digitalaren eskutik, automobilgintzaren sektorea bizi izaten ari den ziurgabetasun hori modu sistematiko, eraginkor eta lehiakorrean kudeatzea ahalbidetuko du, jasangarritasunaren mesedetan.

Zehazki, eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta **Hazitek** programan dauden erronka teknologikoei dagokienez, **MAT-EV proiektuko** lidergoa nabarmendu behar da; proiektua sortu da mugikortasun elektriko berrira bideratutako material berriak eta horien eraldaketa-prozesuak garatzeko. Era berean, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak **“Retos”** programan eta CDTin (Garapen Teknologiko eta Industrialeko Zentroa) finantzaturiko estatu-mailako beste proiektu batzuk garatzen ari gara, hala nola **NG-PED ekimena**, belaunaldi berriko pedalen plan teknologikoa barne hartzen duena. Europa-mailan, hainbat programatan hartzen dugu parte, hala **Horizon 2020** programa orotarikoan nola **ALLIANCE (Affordable Lightweight Automobiles)** nabarmengarrian, eta, EITrekin (European Institute and Innovation Technology) batera, beste programa espezifiko batzuetan aukerak bilatzen jarraitzen dugu, **Raw Materials** zein **Advance Manufacturing** delakoetan. Azkenik, Europan, eragile aktiboa gara sektore aeronautikoko CleanSky programan, **RIB-ON** ekimenarekin.

Teknologia berrien integrazioari dagokionez, eta start up-ekin lankidetzan, BATZek trakzio-enpresa gisa hartzen du parte Eusko Jaurlaritzaren buru duen **BIND 4.0** ekimenean, SPRIren bitartez. **Machine Learning**-a gehitzeko eta **Zibersegurtasuna** areagotzeko programetan lanean jarraitu dugu, 2018an abiatutako IT/OT sareak integratuta. 2019an, hedaduraz automobilgintzako sistemiei ere eragiten dien **Errealitate Areagotua** esperimentatu genuen trokelgintzako negozioan.


Azkenik, BATZ Group eragile aktiboa da bere berrikuntza- eta ekintzailtza-ekosistemaren barruan. Ingurune hainbat eragilerekin etengabeko harremanean, aipatzekoa da etengabe parte hartzen dugula organo publiko-pribatuek koordinatutako ikerketa-programetan. BATZek jasangarritasunaren esparruko beste ekimen batzuetan ere parte hartzen du, eta sustatu egiten ditu, gure ingurunearen garapen ekonomiko eta sozialean ardaztuta, Errota Fundazioko buru izanik. Baita, gizarteratzea eta lan-munduan txertatzea helburu, Denbora sarean, Novia Salcedo Fundazioan eta Bizkaia Talenten ere, besteak beste, txosten honen Gizartea atalean zehaztu bezala.

Sarean sortutako ezagutzatik abiatuta, balioa sortzea. Elkarlan soilaren ideiatik harago doan kontzeptua, gure bezeroen arrakasta lortzeko soluzioen ekarpena iritsi arte. ‘Meeting your challenges’.



Eraginkortasun operatiboa. BATZ Manufacturing System

BATZ Manufacturing System (BMS) eredu industrialak Automotive Systems negozioa egituratzen du. Eredu horrek gure prozesu ezberdinak nahasten ditu eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako lan-metodo estandar bat ezartzen du, bezeroaren gogobetetasuna areagotzeko helburu argiarekin, kostu, kalitate eta denborari dagokionez.



BMS, BATZen balioak oinarri hartuta eraikitako sistema dugu, bezeroari zerbitzu ona, kalitatea eta kostu baxuak eskaintzeko helburua duena. Funtsezko lau ardatz ditu:

Bikaintasuna lanean.

Hobekuntza-proiektuak metodologia estandarizatu bidez garatzen ditu, BATZen emaitzetan hobekuntza disruptiboak lortzeko. Adibidez, produktibitatea hobetzeko muntaketa-lineak berriz diseinatzea, SMED prentsetan eta injekzioan, hornitzaileekin pull planning lana hastea, tren logistikoa ezartzea edo proiektuen Lean kudeaketa (Obeya aretoa eta industria-batzordeak), besteak beste. Industriaren garapenak eta bilakaerak, era berean, hobekuntzari eutsiko dioten ezagutza-bloke berriak garatzera garamatzate, hala nola egungo digitalizazioa eta 4.0 Industria.

Kaizen Egunerokoa.

Zutabe honek pertsona guztiak eguneroko kudeaketan inplikatzeko dakar, lortutako hobekuntzei eusteko eta desbideratzeak azkar eta eraginkortasunez hauteman eta konpontzeko, estandarrak zorrozki beteta. Eguneroko/asteroko bileren bidez eta erakundearen alor guztietan 5Sak inplementatuz egiten da, adierazleen jarraipena eginez eta etengabeko hobekuntzari eutsiz.

Kaizen Liderrak.

Negozio-estrategiak eta erakundearen maila guztietarako hedapena zehaztu. Helburuen desbideratzeak epe motzean kudeatu, aztertu eta ebatziz. Zutabe honen ekintza nagusia zuzendaritza-taldearen eguneroko bilerak dira, adierazle giltzarrien eguneroko jarraipena egiteko eta zuzendarien ibilbide estandarizatuak hastea.

Kaizen Euskarria.

Zutabe honen barruan, negozioaren industria-eredua zehazteko lan egiten dugu, etengabeko hobekuntzarantzko kultura-aldaketaren jasagarritasuna honela bermatuta: gobernu-eredu bat sortuz, eskuliburu estandarrak sortuz, newsletter-a finkatuz, urteko BMS ikuskapenekin hasiz.

BATZ Manufacturing System-en hedapena 2019an

Hainbat urtez etengabeko hobekuntzaren alorrean lan egin ondoren, 2017an BATZ Manufacturing System zehaztu eta, horrela, azken urteetan ekoizpen-lantegietan egindako lana egituratu zen.

Automotive Systems enpresaren negozioko lantegi guztiek sistema horren oinarrien arabera lan egiten dute, industria-arlo korporatiboak gidaturik.

2018an Igorreko, Txekiako, Mexikoko eta Kunshaneko lantegietan egindako ikuskapenei esker, non BMSren sostengu diren lau zutabeetako (Bikaintasuna lanean, Kaizen Egunerokoa, Kaizen Liderrak eta Kaizen Euskarria) bakoitzaren ezarpenaren aurrerapena ebaluatu zen, 2019an, optimizazioaren eta estandarizazioaren bidez, eraginkortasunari dagokionez aurrera egiten jarraitu ahal izan genuen. Era berean, 2019an, BATZ Zamudio BMSren hedapenean sartu zen; lantegi horrek urteetako lan-eskarmentua du Lean eremuan, ikuskapenaren ondoren lortutako emaitza bikainek erakutsi zuten bezala.

Lanaren Bikaintasunaren esparruan, gure filial mexikarreko talde osoaren inplikazioari esker, etengabeko hobekuntzaren bidean aurrera egiten jarraitu ahal izan dugu, eta emaitza bikainak lortu ditugu. Horren erakusgarri da iaz, BATZ Manufacturing System-eko Lerro Diseinuaren eta Ertz Diseinuaren metodologiaren bidez, pieza/ordu/pertsona produktibitatea handitzea lortu zutela, eta ekoizpen-txanda murriztea.

Kaizen Egunerokoa, aipamen berezia merezi du Kunshanen materialak eta ekipamenduak hobeto erabiliz kostuak murrizteko egindako lanak. Kamishibai ikuskapen-sistema ezarri izanari esker lortu da mugarri hori, eta, hala, zehazturiko estandarrak eta iraunkortasun-metodoa denboran mantendu ahal izan dituzte. Horren erakusgarri, Kunshaneko kudeaketa-arlo guztietan 5S fisiko eta digitaletan lortutako emaitzak.

Kaizen Liderren zutabearen barruan, lantegiko batzordeen eguneroko bilera ezarri da, funtsezko adierazleen desbideratzeak epe motzean kudeatzeko eta ebazteko; San Luis Potosin izandako aurrerapena nabarmentzekoa da. Bestalde, aipatu beharra dago zutabe hau talde-mailako eragiketa-taldean ere hedatu dela.

Azkenik, eta Kaizen Euskarriren barruan, BMS metodologiaren prestakuntza eta komunikazioan egindako lana nabarmendu behar da; izan ere, dibulgazio-ekintza horiek metodologia eta haren helburuak hobeto ulertzea eta onartzea ahalbidetzen dute, eta, beraz, taldeak gehiago inplikatzeko.



Garapen digitala, gure enpresa-kudeaketarako giltzarria

Dokumentu honetan diogun bezala, teknologia berrien agerpena bultzatzen ari den eraldaketa digitalak agertoki eta erronka estrategiko berriak zirriborratzen dizkigu, eta gure kudeaketa-ereduak horietara egokitu behar ditugu. Horrela baino ezingo ditugu aprobeztatu aukerak, eta ingurune berri honetan datozkigun arriskuak minimizatu.



Helburu horrekin, 2019an gure garapen digitalerako ibilbide-orria zehazten jardun genuen. Tresna digitalen aplikazioari dagokionez erakundearen egoerari eta orain arte egindako aurrerapenei buruzko azterketa bat oinarri, ibilbide-orri hori jasotzen duen garapen digitalerako Plan Estrategikoa egin genuen, bi jarduera-ardatz nagusiri erreparatuta:

- Prestakuntza digitalerako plana
- Estrategia digitalaren komunikazioa

Azterlanak bi ideia nagusi ditu. Bata da garapen digitala kultur aldaketa dela, nagusiki; beraz, BATZ osatzen duten pertsona guztiak hartu behar ditugu kontuan prozesu horretan, azken batean haiengan oinarrituko baita eraldaketa. Bestea hau da: bada beste guztiak barne hartzen eta biltzen dituen sektore bat: zibersegurtasuna.

Ildo horretan, zibersegurtasunari buruzko kontzientziazio-plan bat abiatu zen, BATZ Group erakunde osoa barne hartzen duena. Planean, pertsonak kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko mota guztietako ekintzak garatzea aurreikusten da, lan-esparruan ez ezik, norberarenean ere, hortxe bereziki. Bide horretan, honako hauek nabarmendu behar dira: erakunde osorako aurrez aurreko prestakuntza-saioak, aldian behin banatzen diren prestakuntza-pilulak, infografiak, erasoen simulazioa, etab.

Bestalde, informazioaren segurtasuna kudeatzeko gure sistemaren ziurtapenaren irismena zabaltzeko, UNE-ISO/IEC 27001:2014 arauaren arabera, kontingentzia-plan garatuagoak barne hartuta eta negozio-jarraitutasunerako planak eginda, gaur egun BATZ Group osatzen duten lantegi gehienak barne hartzen dituztenak.

Strategic Marketing Management System


2019an, Strategic Marketing Management System (SMMS) proiektua garatzen jarraitu genuen. Etorkizuneko erronkak zehaztera, ikusgarritasun handiagoa lortzera eta, beraz, gure jasagarritasunari laguntzera bideratutako orientazio, prozesu eta tresnen multzoa da. Marketin estrategikoaren kudeaketa-sistemaren definizio hori funtsezko tresna bihurtu da, eta BATZen epe luze, ertain eta laburrerako estrategiei zorroztasuna, ordena eta argitasuna emateko aukera ematen digu. Bi helburu ezarri genituen:

- A. Estrategiari dagokionez, aukerak identifikatu eta kudeatzeko metodologia zehaztu, epe luzera begira (5-10 urte).
- B. Arlo operatiboan, gure estrategia urtero berrikusteko tresna ezarri.

Bi helburuek betetze-maila handia izan dute. Izan ere, alde batetik, metodologia hori aplikatuz lortutako emaitzek 2020an hasi dugun hausnarketa estrategikoaren aldirako oinarriak finkatzeko aukera emango digute. Beste alde batetik, eraginkortasun handiagoa eman digu hurrengo ekitaldiko Kudeaketa-planera eraman beharreko helburuak eta ekintza-planak zehazteko orduan, baita uneko urtean aldizkako berrikuspena egiteko ere.

Azken batean, epe luze ezarritako helburuak lortzeko gure ibilbide-orria hainbat ardatzetan zehaztea erraztuko digun azterketa da: errentagarritasuna hobetzea, mundu-mailako presentzia handiagoa eta bezeroengana gehiago iristea, besteak beste.

Gure SMMS elkarloturiko lau ardatzen inguruan egituratua dago, grafiko honetan ikus daitekeen bezala:



01. Marketineko informazio-sistema, merkatua ezagutzeko iturri gisa, zeinean marketin estrategiak oinarritzen diren.

02. Epe luzerako ikuspegiarekin eta erabakiekin lotutako marketin estrategikoa.


03. Epe laburrerako zabalkundea eta marketin-jarduerak jasotzen dituen marketin operatiboa.

04. Sistemaren integrazioa eta jarraipena (prozesuak, planak eta pertsonak), errealitate ezberdinen arteko koordinazioan arreta berezia jartzea eskatzen duen dimentsioa eta footprint globala duen negozio baten errealitateari erantzuna ematen diona.

3.3 ARRISKU ETA AUKEREN KUDEAKETA


Gaur egun, VUCA mundu bati aurre egin behar diogu, non malgutasuna, dimentsionamendua eta gaitasun teknologikoa garrantzitsuak diren. Urte hauetan, gainera, ibilgailu-fabrikatzaileekiko harreman-ereduak aldaketa handiak izan ditu, eta horietara egokitu behar izan dugu, kudeaketa-eredu aurreratuak harturik. Ildo horretan, eta gure kasua denez, erakundearen esparru guztietara hedatutako berrikuntzak sortzen zaizkigun agertoki berrietara egokitzeko aukera ematen digu.

Berrikuntzaz hitz egitean genioen bezala, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da estrategia eta posizionamendu zehatz eta partekatuak izatea, VUCA ingurune horretara egokitzeko eta, horrela, gure jasangarritasuna bermatzeko. Bada, horrek digitalizazioa, eraginkortasuna eta lehiakortasuna ekarriko ditu, zalantzarik gabe.



Alde batetik, denbora daramagu ibilgailuaren CO₂ emisioak murriztea ahalbidetzen duten irtenbideak eskaintzen, eraginkorrak diren eta ingurumena errespetatzen duten autoen eskaerari erantzuna emanez. Ildo horretan, BATZek mekatronikarekin, egiturazko arintzearekin eta aerodinamika aktiboarekin loturiko konponbideak garatuz heltzen dio erronkari, mugikortasun eraginkorrak erantzunez, alegia. Aldi berean, gure egunerokotasunean eragina duten barne-zein kanpo-faktoreen azterketak monitorizatu egiten dira, etorkizunari begira merkatu berrietan eta mundu-mailan askoz footprint aberatsagoa eman diezaguketen partner berriei aritzeko. Ildo horretan, gure Strategic Marketing Management System-en (SMMS) zehazturiko metodologiari esker (lehen ere hitz egin dugu horri buruz txosten honetan), agertoki berriak identifikatu eta kudeatu ahal izan ditugu, trokelgintzaren kasuan, adibidez, eta negozio-eredu jasangarriagoranzko ikuspegia berrikusi ahal izan dugu.

Bestetik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien agerpena industriaren gaurkotasuna zehazten ari da, eta elementu komun bat duten agertoki berriak planteatzen: 4.0 eraldaketa. Bada, automobilgintzaren sektorea industria-arloko aldaketa horien adibide bikaina da. Argi dagoena da eraldaketa digitala ez dela aukera bat, baizik eta erakunde orok bere gain hartu eta bere estrategian txertatu beharreko erronka. Aukeratzat jota ekin genion BATZen manufaktura aurreraturako bideari, erronka hori eraginkortasun-, lehiakortasun- eta jasangarritasun-helburuekin lotuta, Smart Factory eta Zibersegurtasuna kontzeptuak gure produkzio-prozesu guztietan ezarrita.



Industriak, oro har, talentua bereganatzea eta fidelizatzea du beste erronka nagusietako bat. Antolamendu-maila guztietan, prestatutako eta gaitutako pertsonak eduki behar dira, eta, horretarako, BATZen oso argi dugu ezinbestekoa dela pertsonen prestakuntzan, gaikuntzan eta garapenean baliabideak inbertitzea. BATZ Groupen, pertsonen kudeaketa Employee Life Cycle izeneko eredu egituratu batean oinarriturik egiten dugu, zeinak pertsonak erakundean sartzen direnetik bertatik irteten diren arte bistaratzen dituen, BATZen egiten duten egonaldia etengabeko garapenaren ikuspegitik aztertuta.



Gure jarduera dela eta, arreta berezia jartzen diogu baliabideen kudeaketari, baita gure ingurumen-inpaktuaren identifikazioari eta minimizazioari ere, produktuen diseinuaren etapa goiztiarrenetatik. Izan ere, BATZen urteak daramatzagu jasangarritasunaren kontzeptua gure produktuen portfolio-an eta ekoizpen-prozesuetan izendatzaile komun gisa integratzen. Arreta energia-eraginkortasunean jarrita, jarduera hobea lortzeko oinarri gisa. Gure kudeaketa-sistemak ezartzen du gure ingurumen-politikan urtero zehazturiko ingurumen-alderdiak identifikatu eta ebaluatu egin behar direla, hobekuntza-helburuak eta ingurumen-inpaktuak murrizteko, minimizatzeko edo ezabatzeke ekintzak ezartzeko oinarri gisa. Gaur egun gure lantegien % 100 UNE EN ISO 14001 arauaren arabera egiaztatuta daudela esan dezakegu.

Ekonomia- ingurumen- eta gizarte-gaien ebaluazioa

BATZen, hainbat mailatako prozedurak, tresnak eta metodologiak ditugu, arriskuak eta erakunde barruan zein kanpoan hobetzeko aukerak identifikatzeko eta aztertzeko, gero prebentzio-ekintzak edo, hala badagokio, ekintza zuzentzaileak gauzatzeko, baita horien jarraipena, ezarpena eta eraginkortasun-ebaluazioa egiteko ere.

Ekintza horien jarraipena eta ebaluazioa prozesu bakoitzaren bilera operatiboetan egiten dira, baita batzorde operatibo eta estrategikoetan ere, taldeko, negozioko eta instalazioko batzordeetan, hilean behin gutxienez jarraipena eginez.

Irakurlearentzako oharra: ikus erakunde-egitura txosten honen 6. eta 7. orrialdeetan.

Politikak

BATZ Groupek hainbat politika korporatibo ditu. Horietan, gure jarduera arautzen duten printzipioak eta gidalerroak garatzen dira, eta gure kudeaketan eta gobernuan ESKren aintzatespena eta integrazioa adierazten dute; aldi berean, hainbat solaskiderekin dugun harremana taxutzen dute, eta eragin negatiboa duen edozein arrisku identifikatzen, prebenitzen eta saihesten laguntzen digute.

POLITIKAK	DESKRIBAPENA
Jokabide-kodea	BATZ osatzen duten pertsona guztien eta, ahal den heinean, hornitzaile, bazkide eta bezeroen jokaera arduratsua arautzeko prozedurak eta arauak biltzen dituen dokumentua.
ESK politika	BATZ Groupeko negozio-ereduan erantzukizun soziala integartzeko oinarritzko esparrua.
Jasangarritasun txostena	Erakundeak garapen iraunkorraren helburua betetzeko egin duen jarduerari buruzko dibulgazio-agiria
Ingurumen politika	Ingurumen-kudeaketa estrategikoarekin lotutako esparrua, ingurumen arloko helburuak ezartzen dituena.
LSO politika	Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan jarduteko printzipio orokorrak zehazten dituen esparrua
Tooling kalitate politika	Politika honen bitartez, trokelgintza negozioak bere jarduera garatzeko gidalerroak ezartzen ditu (ikuspegia, misioa eta balioak) eta konpromisoa hartzen du horiek betetzeko eta aldizka berrikusteko beharrezko baliabideak eskaintzeko, bai eta egoki den parte guztien artean politika zabaldu eta haren ulermena bultzatzeko.
Automotive Systems kalitate politika	Politika honen bitartez, automobilgintza sistemen negozioak bere jarduera garatzeko gidalerroak ezartzen ditu (ikuspegia, misioa eta balioak) eta konpromisoa hartzen du horiek betetzeko eta aldizka berrikusteko beharrezko baliabideak eskaintzeko, bai eta egoki den parte guztien artean politika zabaldu eta haren ulermena bultzatzeko.
Sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa	Protokolo honek BATZen gerta litezkeen sexu-jazarpeneko edo sexuagatiko jazarpeneko kasuak prebenitzeko prozedurak eta baliabideak jasotzen ditu.
Berdintasun plana	Dokumentu honek era ordenatuan jaso egiten ditu egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurriak, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzeko.
Hautaketa eta garapen politika	Politika honen helburua da BATZ Groupen menpeko enpresa guztiek pertsonak hautatzeko eta garatzeko prozesuetan aplikatu beharreko funtsezko puntuak zehaztea, enpresaren misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat egiten duen profesional-taldea osatzeko.
Nazioarteko mugikortasun politika	BATZ Groupeko atzerriratze prozesuetako dimentsio ezberdinetan eragina duten puntuak biltzen dituen dokumentua. Dimentsio horiek ekonomikoak, profesionalak, psikologikoak, soziokulturalak eta fameliakoak izan daitezke.
Komunikazio politika	Komunikazioaren kudeaketa integralerako erreferentzia-esparrua ezartzen eta zehazten duen dokumentua, barne hartuz helburuko publiko ezberdinak eta dagozkien komunikazio-kanalak.
Informazioaren segurtasuna kudeatzeko eskuliburua	BATZ Groupen jarduerari buruzko Informazioaren Segurtasunaren Sistema ezartzeko gidalerroak eta haren erantzukizunak eta autoritateak ezartzen dituen erreferentzia-esparrua.
Lana eta familia bateragarri egiteko politika	Baimen, eszedentzia edo lanaldi-murrizketei buruzko mekanismoak jasotzen dituen dokumentua.
Lanbideen mapa	Lanbideak eta horien deskribapena eta ordainsari-maila integratzen dituen esparrua.

4. MATERIALITATEA

BATZ Groupek iraunkortasun eta kudeaketa gardenaren printzipioen arabera jarduten du, epe luzerako antolaketa iraunkorra lortzeko faktore garrantzitsuak kontuan hartuta. Modu horretan, interes-talde nagusien interesak aintzat hartu eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-inkapto nagusiak zehazten ditu.

BATZ Groupen iraunkortasuna bermatzeko, ezinbestekoa da interes-taldeek beharrak asetzea eta, aldi berean, negozioa garatzea eta balioa sortzea, honako jarduera-eskemaren bidez:




BATZ Groupen iraunkortasunaren jardura-esparrua honako kanpo eta barne ardatzak hartzen ditu oinarri:



BATZ Groupen, alderdi material garrantzitsuenak identifikatu ditugu. Horretarako, interes-taldeek kezka kontuan hartzen duten inkapto-irizpideak eta kudeaketa aktibo bati lotutako alderdiak aintzat hartu ditugu, antolakundearentzat oso garrantzitsuak direlako.

Irizpide horien arabera, hainbat inkapto material identifikatu ditugu, interes-taldeentzat eta negozioarentzat duten garrantziaren arabera ebaluatu eta lehenetsi direnak, jarraian azaltzen den moduan.

MATERIALITASUN-MATRIZEA



5. GURE INTERES TALDEEKIN KONPROMETITUTA

Gure interes-taldeekin mantentzen ditugun harremanak zaintzea eta sendotzea funtsezkoa da guretzat. Gure xedea argia da: Bezeroei laguntzea eta gure ingurunearen garapen sozioekonomikoan esku hartzea. Hori lortzeko, ezinbestekoak dira konfiantza, osotasuna, lankidetzeta eta gardentasuna.

Horregatik, hainbat komunikazio bide ofizial erabiltzen dugu, elkarriketa sortzeko eta, modu horretan, gure interes-taldeen itxaropenak bete eta bezero bakoitzarekin epe luzerako konfiantza-harremanak eraiki ahal izateko.

INTERES TALDEAK					
BARNEKOA		KANPOKOA			
GURE PERTSONAK	ORGANO SOZIALAK	BEZEROAK	HORNITZAILEAK	GIZARTEA ¹	ADMINISTRAZIOAK ETA ERAKUNDEAK ²
Kooperatibaren berezko komunikazio-kanalak	Kooperatibaren berezko komunikazio-kanalak	Webgunea	Webgunea	Webgunea	Webgunea
Intranet	Intranet	Harreman zuzena	Extranet	Sare sozialak	Sare sozialak
Newsletterra	Newsletterra	Tech days	Bilerak	Elkarriketak eta prentsako artikulak	Elkarriketak eta prentsako artikulak
Bilerak	Bilerak	Azokak eta ekitaldiak	Sare sozialak	Bilerak	Bilerak
Taulak	Taulak	Sare sozialak	Gure instalazioetara bisitak	Jardunaldiak, azokak eta ekitaldiak	Jardunaldiak, azokak eta ekitaldiak
Pantailak	Pantailak	Gure instalazioetara bisitak		Gure instalazioetara bisitak	Gure instalazioetara bisitak
Kanal etikoa	Kanal etikoa	Txostenak		Txostenak	Txostenak
Gogobetetze-inkestak	Gogobetetze-inkestak	Katalogoak			
Harrera plana	Harrera plana				

¹ Bame hartzen ditu gizarte zibila, Mondragon, elkarteak, toki-erakundeak, GKEk, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, zentro teknologikoak...

² Bame hartzen ditu administrazio publikoak, Mondragon, finantza-erakundeak, erakunde arautzaileak, finantzazio-erakunde publikoak...



MEETING YOUR CHALLENGES

Gure DNAn dago. Esaldi horrek BATZ definitzen du eta bertan lan egiten dugun guztion bezeroekiko konpromisoa eta orientazioa islatzen ditu argi eta garbi. Berrikuntza, talde-lana eta arrakasta lortzeko grinari esker, gure enpresaren oinarri diren beste balioen artean, bezeroekin epe luzerako konfiantzazko harremanak sortzen ditugu eta uneko edo etorkizuneko erronkei aurre egiteko laguntza eskaintzen diegu.

Gure baloreak BATZen kudeaketa guztiaren funtsezko euskarria dira eta horien inguruan, gure esparru estrategikoa definitzen dugun, proiektuaren epe luzerako iraunkortasuna bermatzeko.

6. GURE KUDEAKETA-SISTEMA

BATZ Groupen, gure kudeaketaren sendotasuna eta kalitatea ebaluatzen laguntzen diguten tresnak ditugu, eta, aldi berean, Kudeaketa-sistema hauek zehazteko eta mantentzeko jarraibideak ezartzen dituzten nazioarteko estandar nagusien arabera egiaztatzen dute.



Negozio bakoitzak (Tooling eta Automotive Systems) kalitatea kudeatzeko sistema bat dauka, lantegika eta prozesuka. Modu horretan, arreta guztia bezeroen eskakizunak modu sistematiko, seguru eta iraunkorrean betetzen ditugu.

Definitutako Kudeaketa Sistemaren barruan daude BATZ-en kalitatea kudeatzeko beharrezko antolaketa-egitura, erantzukizunak, jarduteko prozedurak, eta enpresaren eraginkortasuna hobetzeko beharrezkoa den prozesu edo baliabide multzo oro.

IATF 16949 arauaren betekizun guztiak, bai eta bezeroaren betekizun espezifikoak, gure kalitatea kudeatzeko sistema osatzen duten prozesuetan ebaluatzen eta sartzen dira.

2019an ere, balorazio bikainak lortu genituen jasangarritasunari buruzko gure bezeroen galdetegietan, non ingurumen-gaietan, lan-jardunbideetan, kudeaketa etikoan, giza eskubideetan eta abarretan adierazle nagusiak balioesten diren. % 84ko batezbestekoa NQC plataforman (Volkswagen, BMW, Toyota, Volvo) eta Silver recognition Ecovadis-en (Groupe PSA, Renault). Horrek ere bezeroek gure proiektuaz eta kudeaketa arduratsuaz duten pertzepzioa balioesten du.





- **Gold Supplier Excellence Award**, Jaguar Land Rover-ek munduko hamabost hornitzaile onenei ematen dien sari nagusia. Sari honek Jaguar Land Rover-entzat aerodinamika aktiboko soluzioak garatzeko dugun konpromisoa eta gaitasuna saritzen ditu.
- **Quality Excellence Award, Volvo Cars**. Fabrikatzaile honen aurreikuspenak bete eta gaintitu dituzten hornitzaileei ematen dien aitortpena, kasu honetan, arintze-arloan ditugun soluzioei esker.
- **Enpresa inkluyente saria**, Mexikoko Laneko eta Gizarte Aurreikuspeneko eta Familiaren Garapen Integraleko idazkariak emana, enpresak laneratzeko politikak hartzeko eta kolektibo ahulen lan-eskubidea bermatzeko ekintzak gauzatzen ahalegina egin duela aitortzen du.
- **AED enpresa-saria** Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartek ematen duen aitortpena. Bizkaian emakumeak lan-munduratzeko ahalegina egin duten emakume enpresari nahiz zuzendarien, erakundeen eta instituzioen lana eta ibilbidea aitortzeko helburuarekin.



7. - PROPOSAMEN IRAUNKORRA

BATZen beti eduki dugu oso argi gure aktibitatea egungo gizartean eragina izan behar duela, baino era berean datozen belaunaldientzako ondarea utzi behar dugula ere, gure sortzaileek egin zuten bezala. Eta hau printzipio sendo eta partekatu batzuetan oinarritutako negozio eredu bati esker posible izan da, misio argi batekin: soluzio berritzaile eta bezeroarekiko konpromisoari esker modu etengabe eta errentagarri batetan haztea, gure inguruaren garapen ekonomiko eta soziala begirik kendu gabe, gure Erantzukizun sozial korporatibo politikan adierazten dugun moduan.

*BATZeko erantzukizun sozial
korporatiboaren oinarriak bost
ardatz ditu*

- Gobernu korporatibo etikoa*
- Pertsonen garapena*
- Gizartean integrazioa*
- Hornitzaileen garapena*
- Ingurumen-erantzukizuna*



8. INGURUMEN GAIAK

BATZen erabateko konpromisoa dugu ingurumena babestearekin eta hondakinen eta gure inguruaren errespetuzko kudeaketarekin.

Gainera, balioa sortzearen aldeko apustua egiten dugu eta balizko ingurumen-eragina minimizatu, BATZ talde osoan eragina duen gure ingurumen-politikako printzipioetan ageri den bezala.



8.1 INGURUMENAREKIKO ERRESPETU-ESPIRITUA SUSTATU

Ziur gaude ingurumen-kudeaketa ona gure profesionalak arlo horretan sentsibilizatuta eta kontzientziatuta egonik hasten dela. Horretarako, gure erakundeko pertsona guztientzako prestakuntza espezifikoak eta aldizkakoak egiten ditugu, ingurumen-trebakuntza maila guztietan jotzen baitugu beharrezkotzat.

Era berean, ingurumenaren arloan egiten diren jardueretan gure ingurunearen inplikazioa bilatzen dugu; horretarako, gure politikak hedatu eta gure ingurunearen hobekuntzan eragina duten ekintzak egiten ditugu.

Ingurumen-kudeaketarako sistema ziurtatua

Gure sorreratik, ingurumenarekiko errespetuaren aldeko apustua egin izan dugu. Lehenengo ingurumen-politika 2001ean sinatu genuen, eta horrela ingurumena errespetatzen duten jarduerak indartu genituen. Jarduera horiek UNE EN ISO 14001 arauan oinarrituriko gure lehen Ingurumen Kudeaketarako Sistemaren (IKS) ziurtapenarekin aitortu ziren, 2003ko irailean.

Urte hauetan guztietan, etengabeko hobekuntzako metodologiaren bidez, IKS optimizatu eta eguneratu egin da, eta, gaur egun, BATZ Groupeko lantegien % 100 ISO 14001 arauaren azken bertsioaren arabera ziurtatuta daude. Nazioarteko estandar berri horrek bizi-zikloaren ikuspegia, arriskuen kudeaketaren aldaketak eta goi-mailako egitura (HLS) hartzen ditu barne, eta horrek kudeaketa-sistemen arteko integrazioa errazten du.

Beraz, kudeaketa-sistema egituratua da, gure enpresaren egunerokotasunean ingurumen-babesa txertatzeko zenbait gidalerro jasotzen dituen. Lan hori helburu hauek betetzera bideratuta dago:

- Aire, ur eta zoru garbi eta osasungarriak bermatu.
- Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
- Naturaren eta bioaniztasunaren babesa: indartu beharreko aparteko balioa.
- Lurraldetasun- eta mugikortasun-oreka: ikuspegi komuna.
- Klima-aldaketaren eragina murriztu.



Helburu horiek lortzeko, kudeaketa-sistemaren tresnetako bat ingurumen-alderdien ebaluazioa da. Era beran, ingurumen-batzordeak egiten dira, helburuetan aurrera egin den ala ez aztertzeko. Zuzendaritzak eta hainbat arlotako arduradunek hartzen dute parte, batez ere ekoizpen-jarduerarekin lotutakoek. Aldizkako bilera horiek, egiten diren barne-ikuskapenekin batera, edozein desbideratze zuzentzeko eta balizko ingurumen-inpaktuei aurrea garaiz hartzeko aukera ematen digute. Gure ingurumen-kudeaketarako sistemak barne hartzen du, halaber, bere komunikazioa, barne- zein kanpo-mailakoa (informazio-pilulak Intraneten, webgune korporatiboan, sare sozialetan, ingurumen-memorian, etab.), baita BATZeko profesional guztien trebakuntza eta prestakuntza ere, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten, ingurumen-inpaktu txikiagoa eraginda.

2019an, kudeaketa-sistema guztiak berrantolatzea planteatu zen, ikuspegi orokor babestua eta taldearen xedeak erraz lerrokatzeko aukera ematearren.

8.2 GURE INGURUMEN-INPAKTUA

BATZen, aurreztearen eta efizientzia energetikoaren alde eginda, jarduera energetikoa hobetu egiten dugu, bai ingurumena babesten laguntzeko bai gure lehiakortasuna areagotzeko.


Ildo horretan, giza baliabide zein baliabide ekonomiko eta material batzuk eskaintzen ditugu urtero gure instalazioetan sortzen diren ingurumen-inpaktuak minimizatzeko eta ingurumen-arloan aplikatzekoak diren lege-betekizunak betetzeko.

Helburu horiek lortzeko, lantegi bakoitzak ingurumen-politikako ingurumen-alderdien ebaluazioa erabiltzen du oinarri. Bi dokumentuok Kudeaketa-sistemaren berezko tresnak dira.

Kontsumo- eta hondakin-kontuetan, hauek dira ingurumen-alderdirik azpimarragarrienak:



Energia-kontsumoak MWh



ENERGIA-KONTSUMOAK

Funtsean, energia elektrikoa eta gas naturala kontsumitzen ditugu; azken hori berokuntzan soilik, gure langileen erosotasun-maila hobetzeko. Beste erregai fosil batzuetatik eratorritako energiaren erabilera ez da oso esanguratsua, eta, nagusiki, orga jasotzaileen flotarako erabiltzen da. Azken hori 11,57 m³-koa izan da.


Hainbat urtez gure energia-eraginkortasuna hobetzearen alde egin ondoren, 2019an % 9,46 hazi zen kontsumo elektrikoa, eta % 5,92 gas naturalarena. Datu horiek energia kudeatzeko erronka egokiei eutsi behar diegula dioskute, denbora errealeko kontsumo-diagnostiko batetik hasita, azkar erreakzionatu ahal izateko.

2019an, halaber, hainbat lantegitako eraginkortasun-planetan jasotako jarduera-ildoak gauzatzen jarraitu genuen, eta ia amaitu dugu ohiko luminariak Led teknologiadun luminariekin ordeztzen, 2018an hasitako aldaketa. Era berean, ihesik egon ez dadin aire konprimatuko zirkuituak aldizka berrikusten jarraitu genuen. Gainera, energia-eraginkortasunerako plana ezartzeko lanean ari gara, talde osora hedatuko dena.

Kontsumo absolutuaren hazkundera, 31.038 MW/h-ra iritsita, erlatibizatu egin behar da, gure instalazioen hazkundera eta instalatutako potentzia aintzat harturik. Gure produkzio-prozesuetan sartutako 6 injekzio-makina berriek energia-kontsumo handia eragiten dute.



Ur-kontsumoa m³-etan



UR-KONTSUMOAK

Uraren kontsumoa hiru prozesuk defini dezakete: ekoizpen-guneetako hozte-zirkuituetatik eratorritakoa, norbere garbitasunera eta iturrietara bideraturiko eremuetako kontsumoa, eta garbiketara bideraturikoa.

Nabarmentzekoa da sistema tradizionaletan oinarritzen ez diren hozte-zirkuituen aldeko apustua, zirkuitu erdi-irekiak dituzten hozte-dorreak, kasu. Sistema berriak zirkuitu itxietako hozte adiabatikoan oinarritzen dira. Ur-kontsumoa murrizteaz batera, Legionella espeziearen ondoriozko arriskuak saihesten dira.

Gure langileek kontsumo indibiduala murrizteko ekintzak etengabe ezartzen dira, gure instalazioak berriro edo handitu ondoren. Hainbat puntu aipa genitzake: txorrotetan aireztagailuak instalatzea, emaria murrizteko; sakagailudun txorrotak, deskuiduen ondoriozko ur-galerak saihesteko; komunetako deskarga bikoitzeko tangak; eta iturrien aldizkako azterketa, ihesak saihesteko eta higienizatzeko.

Garbiketari dagokionez, ahal izan den guztietan garbigailu autonomoekin ordeztu da eskuzko garbiketara, eta, horrela, garbiketara eta kontsumo-denbora optimizatu ahal izan dugu, uraren nahiz produktu kimikoen kontsumoa murrizteaz batera.

2018koarekin alderaturik, kontsumo osoa % 1 hazi da. Energia-kontsumo absolutuaren hazkunderarekin gertatzen den bezala, kontsumitutako 26.577 m³ horietan erositako instalazio

berriak sartzen dira; beraz, faktore horren aurrean erlatibizatuta, jarduera aurreko ekitaldian baino hobeza izan dela uste dugu.

Udal-sareek emandako ur-hornidura osoa mantentzen da, gure lantegietatik gertuko akuiferoak kalte ditzakeen ur-bilketarik egin gabe. Badakigu ura baliabide urria dela eta guztion ardura dela ondo kudeatzea.



HONDAKINEN KUDEAKETA

Lortu beharreko ingurumen-helburuak bi alderdi ditu: batetik, hondakinak minimizatzea, eta, bestetik, sorturiko hondakinak, ahal dela, birziklatzearen, berrerabiltzearen edo balorizazioaren bidez kudeatzea, zabortegetan utzi gabe.


Kudeatutako hondakinen bolumen handiena arriskutsutzat jotzen ez diren gaiak dira, estanzazio-hondar metalikoetatik, injekzio-hondar plastikoetatik eta enbalajea kentzeko hondarretatik datozenak.

Aurreko ekitaldian baino % 16,4 hondakin ez-arriskutsu gutxiago kudeatu da, eta % 34,73 hondakin arriskutsu gutxiago. Orotara, 6.617,1 tona.


Aurreko urteetako ildotik, bolumen handieneko hondakin arriskutsuak oliodunak (taladrinak eta olioak) dira, eta, ondoren, lantegiko garbiketaren ondoriozko garbiketa-ur zikinak eta inpregnatutako solidoak.

Hondakin ez-arriskutsuen % 8,37k baino ez du zabortegetan amaitzen, eta, balioa txikia izan arren, apur bat igo da aurreko urtearekin alderatuta (% 1). Datuen fidagarritasunaren hobekuntzat jotzen dugu. Zabortegeiak sailhesteko ahalegin garbia ikus daiteke.

Hondakin metalikoek dute garrantzirik handiena, guztizkoaren % 84,05 izanik. 2019an, murrizketa izan zen “beste hondakin ez-arriskutsu batzuk” kategorian, paketeen eta bilgarrien kudeaketa hobetu egin zelako eta itzultzeko edukiontzien erabilera finkatu egin zelako.



ISURI ATMOSFERIKOAK



Gure ekoizpen-lantegi guztiek beren isuri atmosferikoak ebaluatzen dituzte, herrialde bakoitzean aplikatzekoa den indarreko legerian ezarritako isurketa-mugak beteta.

Kontrola eskatzen duten ohiko prozesuak soldadura-prozesuei dagozkienak dira, partikula totaletan isurketak neurtuz, klimatizazioarako gas naturalaren errekuntza-prozesuak, CO eta NOx neurketekin lotuak; eta, azkenik, injekzio-makinetan instalatutako erauzketak.

Lantegi batzuk modu aktiboan hasi dira lanean Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) isurketak murrizteko, eta, horretarako, ingurumen-inpaktu txikia duten produktu kimikoak erosi dituzte, beti erabili izan diren produktuen ordez. Dagoeneko lortu da KOL eduki txikia duten desmoldekatzaileak, disolbatzaileak eta pinturak sartzea.

Substantzia horiek, giza osasunerako kaltegarriak izateaz gain, ondorio kaltegarriak dituzte ekosistema naturalean, eragina dute organismoen jarduera fotosintetikoan eta metabolismoan, eta smog fotokimikoa eragiten dute.


Era berean, aldian-aldian kutsadura akustiko mailak kontrolatzen dira, egiaztatutako erakundeekin egiten diren neurketa eta txosten independenteen bidez. Horrela jakin ahal izan dugu, jada neurri zuzentzaile egokiak ezarri dituen lantegi batean salbu, BATZek gaueko eta eguneko ordutegi diskriminatuetan ezarritako mugak errespetatzen dituela.

EKONOMIA ZIRKULARRA

BATZen, urratsak egiten jarraitzen dugu baliabideak aprobetxatzeko sistema baterantz, non murrizketa, berrerabilera eta birziklatzea lehenesten diren.

Gure hondakinen zati batek hondakin izateari utzi, eta lehengai bilakatzen da, txatarraren ohiko aprobetxamendua alde batera utzita. Bigarren urtez jarraian, EAEko gure lantegien % 100eko jantokietan catering-ontzi konpostagarriak erabili dira, tradizionalak erabili beharrean, eta horrek, edalontzi konpostagarrien erabilerarekin batera, baztertutako erabilerak bakarreko plastikoa % 94 murriztea eragin du. Gainera, hondakin konpostagarrien bereizketak 2.375 kg biltzea lortu du aurten lantegi horietan.

Gure edukiontzi itzulgarrietako batzuk hondakin gisa bota zitekeen plastiko propioarekin ekoitzi dira. Ekintza-ildo hori ez da esanguratsua tona-kopurutan, baina oso garrantzitsua da gure erakundeak ekonomia zirkularreko ekimenei gero eta laguntza handiagoa emateko harturiko erabakiari dagokionez.



KLIMA-ALDAKETA

Mugikortasun jasangarriagoaren aldeko konpromisoa gure egunerokotasunean islatzen da. Arintzean eta aerodinamika aktiboan ditugun berrikuntzetatik abiatuta, eta ekoizpen-prozesuetatik igarota, ibilgailuaren eraginkortasuna bilatzen dugu, eta, beraz, energia-kontsumo txikiagoa eta isuriak murriztea, horrek hirietako airearen kalitatea hobetu eta ibilgailuaren CO₂ emisioek eragiten duten berotegi-efektua minimizatzen baitu.


EAEen dauden lantegiek jada sumatu dute, legez bete beharrekoaren barruan, Mugikortasun Jasangarriko planak garatzeko beharra. Lehen urratsa da hori, gero, epe ertainera, talde osora estrapolatu ahal izango dena. Dagoeneko aplikatzen dira zenbait neurri; esaterako, aurrez aurrekoak ez diren bilerak kudeatzeko baliabide teknologikoak erabiltzea, beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihesteko.

GURE KARBONO-AZTARNA

Energia-kontsumoaren ondoriozko karbono-aztarna kalkulatu dugu. AECAREN egokitza-pena duten GRI bihurketa-faktoreak erabiliz, BATZ Groupek igorritako tona baliokideak 11.390,24 t baliokide CO₂ dira. Honela banatzen dira:

	Konbretzio-faktorea (CO ₂ tonak)	Energia-kontsumoa (kWh)	Baliokide tonak CO ₂
Elektrizitatea	0,00039	29.063.067	11.334,60
Gas naturala	0,002009	1.975.062	55,64

Datuak ECODES erakundeak Espainiarako jaulkitako balioen arabera kalkulatu dira (2020an eredu orokorra ezartzea aurreikusi da).



LEHENGAI-KONTSUMOAREN MINIMIZAZIOA


BATZen, urteak daramatzagu jasagarritasuna gure produktuen portfolio-an txertatzen, eta horrek balio erantsia ematen die produktu horiei, ingurumen-inpaktu hobea duten fabrikatutzat jotzen baitira, eta beren bizi-zikloan ingurunerako ez izatea hain kaltegarriak bermatzen baitute. Lehengaien horniduratik hasi, ekoizpena, merkaturatzea eta garraioa igaro, eta hondakinen azken kudeaketara arte. Dokumentu honetan jada jorratu ditugun alderdiak.

Illo horretatik, BATZen lehengaien kontsumoen murrizketa aurrerago fabrikatuko diren produktuen kontzeptualizazio- eta diseinu-fasetik bertatik hasten da. Horrela, hainbat diseinu-kontzeptu aplikatzen dugu, osagaiak arintzea lortzeko. Lehen fase horretan, eraginkortasun handiko ekoizpen-prozesuak ere islatzen dira; horiei esker, ez-produktibitateen eta kalitaterik ezaren ondoriozko material-kontsumoa murriztu ahal izango dugu (pieza metalikoetarako banda-zabalerak, plastikozko piezetarako lodierak eta abarrak optimizatuz). Gure ingeniari-tza aurreratua etengabe ari da lanean simulazio teorikoen eta emaitza errealean arteko korrelazioa hobetzeko, horrela gure produktuetan eta prozesuetan baliabideak ahalik eta gehiena optimizatzeko.

Prozesu horietako batzuetarako aukerak aztertzen eta ezartzen jarraitzen dugu. Aukera horiei esker, lehengaien kontsumoa murriz daiteke, hala nola fabrikazio gehigarria. Horrekin, lanen errepikapenen murrizketa aurreikusten da, eta, beraz, lehengaien kontsumoa ere bai, gure trokelgintzako negozioiko fabrikazio-prozesuetan.

Fabrikazio-fasean, ekoizpen-kate osoa Lean Manufacturing tekniken bidez kudeatzen da. Teknika horiek baliabideak eta, ondorioz, lehengaiak optimizatzea dakarte. Hori prozesu guztietan ekoizpen-eraginkortasuna handitzean lortzen da, denboran, espazioan, hondakinetan, inbentarioan eta akatsetan etengabeko hobekuntza dakarren Kaizen kudeaketa-filosofia ezarrita, dokumentu honen aurreko atal batean BMS eraginkortasun operazionalerako gure industria-ereduan azaldu bezala. 2019an, horretan aurrera egiten jarraitu genuen.

Prozesu guztien etengabeko berrikuspen horren ondorioz, lehengaien kontsumo optimizatuak 10.753 t txapa eta galdaketa eta 8.954 t plastiko izan dira.



BIODIBERTSITATEA

BATZ Groupeko instalazio gehienak industrialdeetan daude, eta, beraz, biodibertsitatean daukaten inpaktua ez da esanguratsua. Hala ere, egoitza nagusiaren instalazioak, Igorren, Mustela nutreola espezie babestuen interes bereziko eremuan daude, Arratia ibaiaren ibaiertzetik eta ibaiadarretatik hedatzen baita haren habitata. Ildo horretan, 2019an egin genuen bezala, bideratu beharreko edozein obra bisoiaren ugalketa-aldia saihestu behar du, makineria garbitzeko errutina bati jarraituz, espezie inbaditzaileak sar ez daitezen, eta Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen arabera halakotzat katalogatutako landare-espezie inbaditzaileak desagerrarazteko, BATZek lan horietarako kontratatzen dituen enpresekin egindako akordioetan zehazten duen bezala. Aldi berean, zuhaitz autoktonoak landatzeko aprobeztatu da. Ibai ertzeko landaredia horretan haltzak, makalak eta lizarrak 50 bat izan dira.

2019AN NABARMENTZEKOAK

Seigarren urtez jarraian, AZTERTU ingurumen-hezkuntzako programarekin elkarlanean aritu ginen, IBAIALDE bertsioan, Arratiako gure kokalekueetatik gertuko ibaien egoera monitorizatzeko:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ibaialde/web01-a2inghez/eu/>

2019an, Sanfilippo sindromearen elkarterako tapoi solidarioen bilketa-kanpainari eutsi genion. Ekimen horrek helburu bikoitza du; izan ere, gaixotasun horren ikerketa bultzatzeko gure aletxoa jartzeaz gain, hondakin plastikoen bereizketa zuzena sustatzea lortzen dugu.

Erabilera bakarrek plastikozko botilen ordez, langile bakoitzari aluminiozko botila berrerabilgarria eman genion opari BATZ Zamudion.

Pull Planning-a garatu dugu logistikan, gure bilgarri/paketeak optimizatzeko. Horri esker, inpaktua murrizten dugu, produktuak baldintza egokietan bidaltzea bermatzeaz batera. Proiektu globala da eta, beste ildo batzuen artean, erabilera bakarrek edukiontzietatik edukiontzi itzulgarrietarako trantsizioa jasotzen du.

Konposatu Organiko Lurrunkor isuriak murriztu ditugu. BATZeko produktu kimiko espezifikoak garatu zen, A&B Laboratorios enpresarekin lankidetzan, disolbatzaile tradizional bat ordezkatzeko, eta KOL isuriak pisuan % 79,96 murriztu ditu. European Business Awards for the Environment saria jasoa du enpresa horrek.

**Ekimen hauek bat datoz Nazio
Batuen Garapen Iraukorrako
Helburuekin**



9. GIZARTEARI ETA LANGILEEI BURUZKO GAIAK

BATZen lan egiten dugun emakume eta gizonak erabat konprometituta gaude gure proiektuaren epe luzerako arrakasta lortzeko. Horrenbestez, egunez egun lan egiten dugu helburu komun hori erdiesteko eta gure langileen dibertsitatea, aukera berdintasuna, prestakuntza eta garapena seguru eta osasuntsua bermatzeko. Azken batean, pertsonengatik eta pertsonentzako pentsatutako leku bat.

9.1 PERTSONEN KUDEAKETA-EREDUA

BATZ Groupen pertsonak kudeatzeko ereduak pertsonak erakundean sartzen diren unetik irteten diren arte bistaritzen ditu, etengabeko garapeneko ikuspegi batekin. Employee Life Cycle ereduaz ari gara (aurrerantzean, ELC).

ELC ereduak gure ESTRATEGIAREN inguruan egituratua dago, pertsonen lorpenetara bideratutako pertsonen kudeaketarako edozein estrategiaren inguruan.

Hortik abiatuta, pertsonen kudeaketa-sistema ezberdinak identifikatu eta garatzen dira, eta langileei euren ibilbide profesional osoan zehar laguntza emateko gidalerroak zehazten dira.



Erakarri eta aukeratu

BATZek hainbat komunikazio-bide identifikatu eta kudeatzen ditu, eta horietara jotzen du talentua erakartzeko:

- Unibertsitate edo lanbide-eskolekin era egituratuan harremanak izanez. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Ikerketa-zentro edo ezagutza handia duten erakundeekin harremanak izanez. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Lan-foroetan geure burua aurkeztuz. (Elkarlan-taula Gizartea atalean.)
- Gure lantegietan prestakuntza-zentroen bisitak izanez.
- 2019an, gainera, aukera profesionalen ikusgarritasuna sustatu zen BATZ Groupen, online tresnen bidez, hala nola hautaketa-atariak, gure webgunea eta sare sozialak (Linkedin edo ezagutza ardatz duten beste batzuk). (BATZ Group komunikazio-politikan zehazturiko komunikazio-mapa).

BATZen, aukeraketa da pertsonen kudeaketaren oinarritzko zutabeetako bat. Baina, “aukeraketa” baino, prozesu hori talentua erakartzeko prozesu gisa aipatu nahiago dugu, prozesu hori BATZ Groupen zehazturiko gaitasunen arabera gure kudeaketa-ereduan oinarrituta. Enpresak aurrera egiteko beharrezkoak diren profilak identifikatzea edo, zehatzago esanda, gaitasun teknikoak eta zeharkakoak identifikatzea izango da hautaketa horren euskarria. Pertsona erakartzea enpresaren barruan eta kanpoan egin daiteke.

Pertsona hori lanean hasten denean eta enpresarekin lehen aldiz topo egiten duenean, haren itxaropenek aurreneko erantzuna jasotzen dute. Lehenengo topaketa hori hasierako harrera egitean gertatzen da. Beharrezkoa da proiektua aurkezte, pertsonari harrera ona egitea, BATZ zer den erakustea, azaltzea zer balioekin funtzionatzen duen, pertsonak nola kudeatzen dituen, enpresan egunerokotasunean nola mugi daitekeen (administrazio-alderdiak), bere lanpostua aurkezte (eta harekin lotutako Laneko Arriskuen Prebentzioko gaiak), eta egunero lanean izango dituen harreman-sare nagusiak erakustea. Ildo horretan, 2019an, harrera-plan hori berriz zehazteko eta sarean tresna bat garatzeko lan egin zen. Tresna hori taldean 2020an hedatzea eta ezartzea aurreikusi da.

Bestalde, hautaketak atzerriatzea badakar, enpresak nazioarteko mugikortasun-politika dauka, zeinetan atzerriatze-baldintzak, helmugako tokiko estaldura-alderdiak, aberriatzearen kudeaketa eta abar jasotzen diren.

Garapena

Pertsona hori BATZen dinamikaren parte izaten hasten denean, bere garapenaz arduratzen gara. Ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen ditugu, barne-sustapeneko politiken, aukera-berdintasunaren eta lanbideen eredu bat aplikatzearen bidez. Gainera, urteko garapen-elkarritzeten bidez, pertsonekin lan egiten da garapen profesionalerako planak zehazteko. Garapen horrek gaitasunak garatzea ekarriko du, garatu beharreko arloak (prestakuntza- eta garapen-planak) identifikatzeko sistema batean oinarrituta.

Lortu nahi den kulturarantz aurrera egiteko, garatu beharreko gaitasun korporatiboak zehaztea funtsezkoa izan da Talde osorako gaitasunen araberako kudeaketa-eredua diseinatzeko. Eredu hori pixkanaka hedatzen eta ezartzen ari da BATZ Groupen, eta berekin dakar lanpostuen deskribapenak egitea, pertsonen gaitasunen araberako ebaluazioa egitea eta ondoren garatzea.

Garatu beharreko arloen identifikazioak jardunaren ebaluazioa du oinarri: arduradunak bere taldea ebaluatu eta haren garapena bideratzen du. Baina arduradunak zeregin hori gauzatu ahal izateko, liderraren rola identifikatu behar da, hark erakundean izan behar duen rola, bere taldearen garapena eta inplikazioa lortzeko; horretarako, prestatu beharra dago (lidergoa garatzeko planak).

2019an, Gaitasunen araberako Kudeaketa Ereduaren lehen faseak finkatu eta ezarri ziren, Zuzendaritza eta Aginte Lineako taldearekin garatu beharreko funtsezko alderdietako bat den aldetik, BATZen “liderraren rol” gisa zehaztutakoaren barruan.

BATZEN, GURE LANGILE GUZTIEI ERAGITEN DIETEN PRESTAKUNTZA-EKINTZAK SUSTATZEN DIRA, HIZKUNTZETAN, GAITASUN KORPORATIBO ETA TEKNIKOETAN, ETA KUDEAKETA-SISTEMETAN, BATZUK NABARMENTZEARREN.

Prestakuntza

	IGORRE		TXEKIA		ZAMUDIO		MEXIKO		KUNSHAN		GUANGZHOU		CHENGDU		AEB		TOTALA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Langileek jasotako ingurumenari buruzko barne-prestakuntza orduetan	98,0	15,0	520,0	0,0	150,0	66,5	730,0	84,0	8,0	4,0	16,0	16,0	4,0	3,0	0,0	0,0	1.526	189
Langileek jasotako ingurumenari buruzko kanpo-prestakuntza orduetan	18,0	26,0	0,0	152,0	80,0	0,0	414,0	96,0	20,0	12,0	0,0	0,0	4,0	24,0	0,0	0,0	536	310
Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko prestakuntza: lanpostuetako arriskuak orduetan	84,0	121,0	1.040,0	304,0	150,0	126,0	84,0	67,0	8,0	302,0	8,0	8,0	8,0	7,0	0,0	0,0	1.382	935
Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko prestakuntza: manutentzio baliabideak (garabiak, plataformak, eskorgak, altuerako lanak) orduetan	299,0	509,0	176,0	74,0	80,0	345,0	80,0	103,0	8,0	120,0	16,0	16,0	8,0	7,0	0,0	0,0	667	1.174
Beste gaietako buruzko prestakuntzak orduetan	9.039,0	4.751,4	240,0	520,0	90,0	803,5	102,0	279,0	8,0	0,0	24,0	24,0	24,0	38,5	0,0	0,0	9.527	6.416
Langileek jasotako prestakuntza, guztira orduetan	9.538,0	5.422,4	1.976,0	1.050,0	550,0	1.341,0	1.410,0	629,0	52,0	438,0	66,0	64,0	48,0	79,5	0,0	0,0	13.640	9.024

- Beste gaietako buruzko prestakuntza-Igorre – 2018, zuzenduta,
- Prestakuntza-orduen jaitziera plantillaren profila taulako enplegu-sorrera garbia adierazlearekin lotzen da.

Pertsonen 4.0 kudeaketarantz

2019an, ahalegin handia egin zen kultur aldaketa bultzatzeko eta eraldaketa digitala erakundean integratzeko, pertsonen bidez eta pertsonentzat. Alde batetik, komunikazioa hobetu eta gure pertsonen kudeaketa optimizatu eta arintzen duten tresna digitalak txertatu eta sustatu dira. Bestetik, aginte-lerrora bideratutako gaitasun eta trebetasun digitalak garatzeko hainbat ekintza egin da, lehen fase horretan lantaldeak hobeto kudeatu ahal izatea ahalbidetuko duten tresnetan.

Konpromisoa eta atxikipena

Edozein proiektuk arrakasta izan dezan, funtsezkoa da pertsona enpresaren barruan balioetsita sentitzea, aintzat hartua, alegia. BATZen, ahalegina eta lana aitortzen eta sustatzen dira, besteak beste barne-sustapeneko politiken, aukera-berdintasunaren eta lanbideen eredu baten aplikazioaren bidez, jarraian zehazten den bezala:

- Lasterketa-kurbak identifikatzen dira (bai mugikortasun horizontalean bai bertikalean).
- Gizarte-onuren sistema egituratuak finkatzen dira.
- Kontziliazioa ahalbidetzeko politikak zehazten dira.
- Antolamendu-ereduak hobetzen dira, pertsonen gaitasunak garatzen eta pertsona/postua egokitzen laguntzeko.
- Barne-komunikazioko prozesuak lantzen dira, pertsonen konpromisoa lortzeko oso garrantzitsuak.
- Pertsonen kudeaketa egiten da, generoen arteko berdintasuna sustatuta.

Politika guztiak eta horien deskribapena 3. puntuan (Politikak)

Berdintasun plana

Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko indarreko lege-esparrua betez, 2013an, BATZ S. Koop-en kanpo-diagnostiko bat egin genuen gai horri buruz, oso emaitza onak lortuz.

Diagnostikoaren ondorioz, plan bat egin genuen ekintza zehatzekin eta berdintasun batzorde bat eratu genuen. Batzordea negozioetako arlo ezberdinetako partaideek osatzen dute, lau urteko indarraldia du eta kideak urtean behin biltzen dira.

Berdintasun Planaren ekintzak hiru ardatzetan banatzen dira:

Balioak: enpresan genero berdintasunaren balioak lantzea, haren kulturaren eta lan onaren parte izan dadin. Eta berdintasuna ikusgai egitea enpresaren estrategian.

Pertsonen kudeaketa: genero-ikuspegia txertatzea gure pertsonen kudeaketa-prozesuetan: hautaketa, promozioa, prestakuntza, lan-baldintzak oro har, laneko osasunaren sustapena eta laneko arriskuen prebentzioa, kontziliazioa, sexu-jazarpena eta sexuagatikoz jazarpenaren hautematea eta sailhestea, eta abar

Komunikazioa: barne eta kanpo komunikazioa eta informazioa aktibatzea, garatzen diren jardueren inguruan eta berdintasun-arloko aurrerapenen inguruan. Kontuan izan behar da hizkuntzaren eta irudien berdintasunezko erabilera BATZeko kanpo irudiaren eta publizitate guztian eta erakundearen komunikazio korporatiboari dagokionez, automobilgintzari lotutako estereotipoekin hausteko helburuz.

Plana kooperatibara mugatzen da lehenengo fase honetan, baina aipatu behar da BATZek legearen betekizunak betetzen dituela, kudeaketa-plan aurreratu bat eta lanbideen mapa bat baitu. Gure taldean berdintasuna (mota guztietakoa) oso kontuan hartzen dugu, ez da kuota kontua

Aniztasuna

	IGORRE		TXEKIA		ZAMUDIO		MEXIKO		KUNSHAN		GUANGZHOU		CHENGDU		AEB		TOTALA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Langileen genero-aniztasuna																		
Kontratua duten emakumeen kopurua	103	110	90	79	19	22	120	118	60	49	6	6	9	6	0	0	407	390
Kontratua duten emakumeen %	15,49%	16,77%	67,67%	46,75%	13,67%	11,46%	40,82%	34,50%	29,41%	30,63%	50,00%	50,00%	40,91%	42,86%	0,00%	0,00%	27,67%	25,21%
Genero-aniztasuna goi-zuzendaritzako postuetan																		
** Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten pertsonen kopurua	9	20	7	9	7	7	8	11	9	11	0	0	0	0	1	0	41	58
Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten emakumeen kopurua	4	3	3	5	3	3	1	1	4	3	0	0	0	0	0	0	15	15
Goi-zuzendaritzako postuetan lan-kontratua duten emakumeen %	44%	15%	43%	56%	43%	43%	13%	9%	44%	27%	0%	0%	0%	0%	0%	0%	37%	26%
Guraso-baimen bat baliatzen duten gizonezko langileen kopurua	19	8	0	0	3	4	3	8	6	9	1	0	1	1	0	0	33	30
Amatasun-zerbitzu bat baliatzen duten emakumezko langileen kopurua	2	6	3	5	0	0	7	4	3	3	1	1	0	0	0	0	16	19

** Goi-zuzendaritzako lanpostuen irizpide-aldaketa, 2018. urtearekin alderatuta.

“BATZ S. Koop, taldearen matrizean, emakumeek % 25eko parte hartzea dute sozial eta errektore organoetan, langileen emakumeen kopuruarekiko proportzionala den zenbatekoa. Kooperatibako bazkideen artean aukeratutako ordezkaritza- eta gobernu-organo gorenak dira horiek.”

2019KO INTEGRAZIO ETA AINTZATESPEN EKINTZA BATZUK

BATZen hainbat ekitaldi eta ospakizun antolatzen ditugu, kide izatearen sentimendua indartzeko eta, aldi berean, guztien lan-harremanak bultzatzeko. Horien artean daude ateak zabaltzeko jardunaldiak, Gabonetako afaria, emakumearen nazioarteko egunaren ospakizuna eta euskararen egunaren ospakizuna, eta abar.

Abantailak

- Haurtzaindegitekeak
- Medikuzko zerbitzua
- Langileen bekak
- Hizkuntza-klaseak
- Jantoki laguntzak
- ...



Lan-deskonexioa

BATZen, lanean dihardugu taldeko langileen kontziliazioa sustatzeko, baita laneko deskonexioa ahalbidetuko duten jardunbide berriak txertatzeko ere. Norbere ordutegian lor daitezkeen helburuen bidez neur daitezkeen zereginak esleitzetik hasi eta kontziliazioa ahalbidetzeko politikak garatzeraino.

Erakundetik ateratzea

Erakundearen pertsonen harrera ona egitea bezala, BATZen oso garrantzitsutzat jotzen dugu haien irteeraren kudeaketa. Joateko arrazoiak edozein izanda ere, badakigu pertsona bakoitzak gure proiektuaren hazkunderari prestasuna, denbora eta ahalegina eskaini dizkiola, eta bidea erraztu behar diogu.

- Irteera erretiroaren bidetik izan daiteke (horrek eragin dezake erretiro-plan zehatzak egotea eta egoera horretan izaten laguntzeko administrazio-prozesuen kudeaketa).
- Outplacement prozesuak martxan jarri lagundutako irteera ere izan daiteke.
- Irteera orok ordezkapena eskatzen du. Beraz, erakundeak ordezkapena egiteko beharrezko planak abiaraziko ditu.

LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

BATZek bermatzen du enpresa osatzen dugun pertsona guztiek lana eta jarduerak inguru seguruan garatuko dugula. Horretarako, prebentzio, segurtasun eta ergonomia baldintza guztiak betetzen direla kontrolatzen du eta jarduera behar bezala burutu dezaten beharrezko prestakuntza eta metodologia eskaintzen die langileei. Ildo horretan, laneko segurtasuna eta osasunaren arloko baliabideak kudeatzeko sistema egiaztatu bat ezarri dugu, eta laneko prebentzio eta arriskuen plan bat. Modu berean, ekoizpen planta bakoitzera egokitutako laneko osasun eta segurtasuneko politika bat daukagu.



Trebakuntza laneko segurtasun eta osasun arloan:

2.109 ordu

LARRITASUN-INDIZEA

0,48

MAIZTASUN-INDIZEA

30,7

Gure instalazioen %76 ISO 45001 eta OHSAS 18001 arauaren arabera dago ziurtatuta.

Era berean, langileentzako berezko mediku eta erizaintza zerbitzua dugu eta mutualitateekin eta mediku-zerbitzuak ematen dituzten erakundeekin akordioak ditugu, gure kokapen guztietan. Gainera, bizitza osasuntsuko ohiturak bultzatzeko osasun-kanpainak eta jarduerak bultzatzen ditugu aldizka.

OSASUN-KANPAINAK ETA OHITURA OSASUNGARRIAK

Gaixotasun kronikoak hautemateko kanpaina, osasunaren astea, txertaketa-kanpainak (Influentza, TD, hepatitis, ugalketa-osasuna, lehen sorospinak), elikadurari buruzko saioak, tabakismoaren aurkako kanpaina, Nordic walking, osasun-lasterketak...





2019an laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketan integratutako beste ekintza batzuk

Arrisku psikosozialen ebaluazioa.

2018. urtearen amaieran, gure lan-ingurunea hobetzeko aukerak identifikatu genituen, arrisku psikosozialen ebaluazioaren bidez. Hala, arrisku-faktoreak antzeman eta, 2019an, hobekuntza-neurriak ezarri ahal izan genituen, lanaren antolaketarekin eta ingurune sozialarekin lotuta, baita lanaren edukiarekin eta lana egitearekin ere. Lan-ildo nagusia azterlan horren ondorioen berri ematean eta gure pertsonen arlo horretan duten prestakuntzan oinarritu zen.

Segurtasuna nazioarteko helmugetan.

Gure jarduera mundu-mailako ingurunean garatzen dugu, pertsonen kudeaketari dagokionez erronka batzuk dakarzkigun ingurunean, hain zuzen. Horietako bat langileen beharrezko mugikortasuna da, dela “atzerriratzearen” bidez, dela iraupen laburreko aldi baterako joan-etorrien bidez (negozio-bidaia edo ohiko joan-etorriak). Dena den, kasuistika edozein izanda ere, guztiek dute izendatzaile komun bat: gure pertsonen segurtasuna eta ongizatea.

Horretarako, bidaietarako laguntza-zerbitzu osagarria dugu gure langileen eskura, nazioartean izan ditzaketen arrisku medikoen eta segurtasun-arriskuen kudeaketa errazteko. 2019an, esparru horretan aritzen diren 300 lagunetatik 250i eman genien prestakuntza.

Laneko segurtasuna eta osasuna

	IGORRE		TXEKIA		ZAMUDIO		MEXIKO		KUNSHAN		GUANGZHOU		CHENGDU		AEB		TOTALA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Langile kopurua	665	656	133	169	139	192	294	342	204	160	12	12	22	14	2	2	1471	1547
Lan egindako ordu-kopurua	1.151.884	1.196.616	193.551	97.940	210.620	241.312	718.907	546.119	915.422	460.897	29.370	29.964	56.233	38.456	3.504	3.504	3.279.491,02	2.614.808,64
Baja eragin duten istripuen kopurua - Emakumeak	n/a	6	n/a	0	n/a	2	n/a	0	n/a	1	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	9,00
Baja eragin duten istripuen kopurua - Gizonak	n/a	27	n/a	0	n/a	23	n/a	0	n/a	2	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	52,00
Baja eragin duten istripuen kopurua - Guztira	n/a	33	n/a	0	n/a	25	n/a	0	n/a	3	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	61,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua - Emakumeak	n/a	0	n/a	15	n/a	1	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	16,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua - Gizonak	n/a	3	n/a	13	n/a	9	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	25,00
Bajarik gabeko istripuen kopurua - Guztira	n/a	3	n/a	28	n/a	10	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	41,00
Inzidente kopurua	n/a	69	n/a	0	n/a	4	n/a	30	n/a	3	n/a	0	n/a	0	n/a	0,00	n/a	106,00
Larritasun-indizea: (galdutako lanaldi kopurua/ lanean emandako ordu kopurua)	0,84	0,74	0,00	0,00	1,42	1,44	0,00	0,00	0,01	1,67	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,28	0,48
Maiztasun-indizea: (istripu kopurua/ lanean emandako kopurua)	19,97	17,24	180,00	145,80	59,00	75,80	1,14	0,00	5,46	6,51	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	33,2	30,7
Absentismo tasa	n/a	6,51	n/a	4,86	n/a	4,89	n/a	1,32	n/a	0,05	n/a	3,30	n/a	0,02	n/a	0,00	n/a	2,6
Absentismo orduak	78.465,50	74.194,25	n/a	13.858,00	n/a	11.535,00	n/a	8.884,44	n/a	23.373,00	n/a	69,00	n/a	745,50	n/a	0,00	n/a	132.659

9.2 PLANTILAREN PROFILA

	IGORRE		TXEKIA		ZAMUDIO		MEXIKO		KUNSHAN		GUANGZHOU		CHENGDU		AEB		TOTALA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Plantilaren profila																		
Langile kopurua	665	656	133	169	139	192	294	342	204	160	12	12	22	14	2	2	1.471	1.547
Kontratu mugagabea duten langileen kopurua	531	531	116	69	139	151	199	281	196	11	12	11	22	14	2	2	1.217	1.070
Aldi baterako kontratua duten langileen kopurua	134	125	17	100	0	41	95	61	8	149	0	1	0	0	0	0	254	477
Kontratua duten langileen kopurua	665	656	133	169	139	192	294	342	204	160	12	12	22	14	2	2	1.471	1.547
Adinaren arabera banaketa																		
Adina <30	61	45	33	27	17	21	147	160	39	15	7	9	4	1	0	0	308	278
Adina 30-50	466	470	90	73	87	133	129	163	164	144	4	2	18	13	1	2	959	1.000
Adina >50	138	141	10	23	35	38	18	19	1	1	1	1	0	0	1	0	204	223
Batez besteko adina	43,57	43,60	38,42	39,21	42	42	31	37	37	35	31	32	35	38	43,5	44	37,7	38,9
Kategoriak																		
Goi-zuzendarien kopurua	16	19	7	9	7	7	9	11	9	11	1	1	1	1	1	0	51	59
Erdi-mailako kargudunen kopurua	47	34	3	9	6	6	11	19	0	0	0	0	0	0	0	0	67	68
Gainerako MOI kopurua (Zeharkako eskulana)	267	263	38	55	30	35	18	102	82	76	6	7	9	7	1	2	451	547
MOD kopurua (Zuzeneko eskulana)	335	340	85	96	96	144	256	210	113	73	5	4	12	6	0	0	902	873
Ezgaitasuna duten langileen kopurua	0	0	0	1	2	2	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	2	5
Enplegu sorrera garbia	-29	-9	10	16	23	25	135	48	-17	- 44	0	0	0	-8	2	0	124	28
Langileek erakundean irauten duten denboraren batez besteko kopurua (urtetan)	9,5	12	6	7	8,3	9	2,58	2,1	3	5,11	3,9	3,48	3,9	5,2	1,55	10	4,8	6,7
Hitzarmen kolektiboz estalitako langileen ehunekoa	100%	100%	0%	0%	100%	100%	84%	84%	100%	100%	100%	100%	100%	100%	100%	50%	86%	79%

*BATZ-ek ezgaitasunen bat duten pertsonen lana lortzen laguntzen dien kontratazio zuzenaren bitartez edo enplegu-guneen zerbitzuak eta produktuak azpikontratatu.

9.3 GIZARTE-HARREMANAK

Elkarriketa sozialaren antolaketa, langileei informazioa emateko eta kontsulta egiteko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne, lurralde bakoitzeko legediaren arabera definitzen da. Guretzat lehentasunezkoak dira sindikatu- eta lan-legeria errespetatzea, diskriminaziorik ezaren politikak, jokabide-kodea betetzea, hala nola laneko segurtasuna eta osasuna.

Hainbat arlo, hedabide eta helburu zehatzetan egituratzen da BATZeko barne komunikazioa. Gauzak horrela, igorleak nortzuk diren hedabide bakoitzean zehazten da hala nola BATZ Groupeko barne komunikazio mapan.

BATZ-en barne-komunikazioko prozesuen dinamizazioa eta eraginkortasuna erraztu behar duten kanalak, helburuak eta oinarritzko edukiak eta igorleak irismen orokorrekoak dira enpresa eta filial guztientzat. Aurrekoa gorabehera, eta taldea osatzen duten enpresen kultura-, antolamendu- eta/edo sozietate-desberdintasunak direla eta, horiek dagozkien organoetan komunikazio-bide gehigarriak edo toki-aplikazioko egokitzapen jakin batzuk onartzea planteatu ahal izango dute, betiere BATZ Groupen politika globalean zehaztutako ildoak errespetatzen badituzte.

9.4 BARNE-KOMUNIKAZIOAREN MAPA

ESPARRUA	ERAKUNDEARENA	BETEARAZLEA EDO KUDEAKETARENA					
BITARTEKOA	Intraneta	Kolaboratzaileen batzarra	Batzarrak arduradunekin	Harrera plana	Gogobetetze inkestak	Arduradun-kolaboratzaileen langela	Jardunaren ebaluazioa
HELBURUA	Informazioa ematea BATZ GROUPen alderdi esanguratsuen inguruan, bai erakunde mailakoa zein gizarte arlokoa ere.	Arduradun eta kolaboratzaileen arteko Komunikazio Foroa; besteak beste, ondokoak jorratzeko: arloko helburuen bilakaera, lantaldea/ ekipoa motibatu, behetik gorako (enpresa edo gizarte arloko) kezka/ardurak bideratu.	Komunikazio Foroa; besteak beste ondokoak jorratzeko: Plan Estrategikoa, Kudeaketa Plana, Enpresaren, gizarte arloko gairik nabarmenenak...	Hainbat arlori buruzko hasierako informazioa eskaintzea: Enpresa, lanpostua, lan inguruko alderdiak, laneko arriskuen prebentzioa...	Hainbat aldagairen inguruan langileek duten gogobetetze maila ezagutzea.	Arduradun eta kolaboratzaileen arteko komunikazio gunea, helburuen jarraipena egin eta elkarrekin hobekuntza ekintzak zehazteko.	Arduradun eta kolaboratzaileen arteko komunikazio gunea, elkarrekin jardunaren balorazioa egin eta garapen eta hobekuntza arloak eta ekintzak zehazteko.
IGORLE NAGUSIA	Zuzendaritza Nagusia / Negozio Gerentzia edo Filialak	Arduradun guztiak	Zuzendaritza Nagusia / Negozio Gerentzia edo Filialak	GGBB eta arduradunak	GGBB	Arduradunak	Arduradunak
NORI ZUZENDUA	Pertsona guztiak	Kolaboratzaileak	Arduradunak	Langile berria	Pertsona guztiak	Kolaboratzaileak	Kolaboratzaileak
IMAIZTASUNA	Etengabea	Bihilekoa	Seihilekoa	Lanean hasi ordukoak	Hirurtekoa	Bihilekoa	Urtekoa
EDUKIAREN ARDURADUNA	Komunikazio arduraduna	Dagokion arduraduna	Zuzendaritza Nagusia / Negozio Gerentzia / Komunikazio Arduraduna	GGBB eta dagokion arduraduna	GGBB	Dagokion arduraduna	Dagokion arduraduna

Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen Garapen Iraukorrako Helburuekin



10. GIZA ESKUBIDEAK

10.1 GURE JOKABIDE-KODEA

BATZ Groupek jokabide-kode bat du 2017tik. Kode hori BATZ osatzen dugun pertsonen jokabide arduratsua arautzeko prozedura eta arau sorta baino askoz gehiago da. Jokabide-kodearen helburua da lehendik BATZ Groupen zegoen enpresa-kultura bat finkatzea.

Kodearen betetze-maila lankidetzan, konfiantzan eta errespetuan oinarritzen da, baita BATZ taldea ordezkatzan duten pertsonen eta hirugarrenen arteko komunikazioen konfidentzialtasunean.

Aplikazio eremua

Jokabide Kodea BATZ talde osoan bete beharrekoa da, maila OROKORREAN, alde batera utzi gabe hemen deskribaturiko gutxieneko eta nahitaez bete beharreko baldintzak sendo ditzaketen tokiko legeriei zor zaien errespetua.

Nori aplikatzen zaio Kodea

BATZ taldeko pertsona guztiei, barne hartuta BATZ S. Koop-en Kontrolpeko Sozietateak.

Kodearen zabalkundea

Jokabide Kode honen berri emango zaie BATZ Groupera heldu berri diren Pertsona guztiei, horretarako ezarritako Harrera Planaren bitartez. Jokabide Kodea onartzean dagoeneko Langileak direnei intranet bidez helaraziko zaie, edo berariaz prestaturiko dokumentazioa banatuko zaie. Hirugarrenei edo interes-taldeei dagokienez, webgunearen edo berariazko argitalpenen bidez helaraziko zaie Kodea. BATZ Groupen Kontrolpeko Sozietate bakoitzeko Gerentziaren erantzukizuna izango da Jokabide Kodearen zabalkuntza benetan egin dela ziurtatzea.

Betetze Batzordea

BATZ Groupeko Betetze Batzordeak, Betetze Zuzendaritza (Compliance Officer) mahaiburu dela, eskumena du betetze-funtzioaren berezko arlo guztietan.

Betetze Batzordeak sortzen eta proposatzen du Jokabide Kode honen edukia, bai eta BATZ taldearen Compliance Program osatzen duten Protokolo guztiak ere; behin BATZ S. Koop-eko Errektore kontseiluak onartuta, Pertsona guztiek bete behar dituzte.

Urraketa eta Kanal Etikoari jakinarazpena

Jokabide Kode hau ez betetzeak Compliance Program urratzea dakar, eta lan- edo sozietate-mailako zigorrak eragin ditzake, dagozkion zigor administratibo edo penalak alaera utzi gabe.

Jokabide Kodea errazago betetzeko, Kanal Etiko bat dago, konfidentziala eta barne-mailakoa, zeinaren bidez:

- Jokabide Kodearen interpretazioari edo aplikazio praktikoari buruzko balizko zalantzak kudeatzen diren.
- Kode honen balizko arau-haustea jakinarazten diren.

BATZ S. Koop-eko Pertsona orok Jokabide Kode honen edo berau garatzen duten Protokoloen Hobekuntza Arlo bat edo Arauhaute bat ezagutuz gero, zuzenean jakinarazi beharko dio Betetze Zuzendaritzari, Kanal Etikoaren bidez.

Jakinarazpen-egileari Kanal Etikoari jakinarazitakoarekin lotutakoaren aurrerapenen berri emango zaio.

2019an, 2 komunikazio jaso dira, eta horietatik komunikazio batek soilik bete zezakeen kodea. Gainerakoa berezko komunikazio kanalaren bitartez bideratu zen. Kodea betetzeko aplikagarria zen kasu bakarrean, horren inguruko ikerketak eta ekintzak eraman ziren aurrera.





10.2 BATZ OSATZEN DUGUN PERTSONA GUZTIEN PORTAERA GIDATZEN DUTEN PRINTZPIOAK

PERTSONAK

Laneko Segurtasuna eta Osasuna

Konpromisoa dugu BATZ Group osatzen dugun Pertsonen, hala nola Hornitzaileei, Bazkideei eta Bezeroei lan-giro seguru eta osasungarria eskaintzeko, bai prozesuetan, bai instalazio eta zerbitzuetan.

BATZ Groupen lantokietan lan egiten dugun Pertsona guztiek betebeharra dugu BATZ Groupek ezarritako arauak ezagutzeko eta betetzeko, bai eta baliabideak erabiltzeko ere, laneko segurtasun eta osasunari dagokionez, modu seguruan eta arduratsuan, lan-arriskuak prebenitzeko eta minimizatzeko xedez.

Nahitaezko lana agintzeko debekua eta kontratazio-politika

BATZ Groupek ez du onartzen, ez zuzenean ez zeharka, Pertsonen borondatea mehatxuen, zigorren, pribazioen, esklabotza edo erdiesklabotza erako formulen edo Giza Eskubideen beste edozein urraketa bidez behartuta lorturiko lana. BATZ Groupeko kontratazio-politika bat dator indarrean den legeriarekin, eta barne hartzen du, haren arabera, gizarte-babeserako eskubidea dakarren guztia, lan egonkor eta kalitatezkoarekin konpromisoa adierazten duen guztia eta bizi-maila duina asetzeko soldata politika ezarriko duen guztia.

BATZ Groupek Pertsonen itxaropenak eta beharrak artatzen ditu, haien bizitza pribatuaren eta profesionalaren artean oreka egokia lortu nahian, hartzen diren neurriek erakundearen lehiakortasuna ez kaltetzeko moduan eta arreta berezia eskainita mendeko pertsonen zaintzari dagozkion pertsonen betebeharrei.

Berdintasuna eta lan-giro adeitsua

BATZ Groupen helburua da lan-giroan konfiantza eta elkarrekiko begirunea nagusitzea; horretarako, Pertsona guztiek sustatuko dituzten harremanak, maila profesional guztietan, oinarrituko dira elkarrekiko begirunean, zintotasunean, adeitasunean, konfiantzan eta talde-lanaren baitako laguntzan eta ahaleginean, lan-giro adeitsua sortuta lankideen, zuzendarien eta hauen mende dauden pertsonen artean, lan-giro positiboa lortzeko.

Gure hautaketa-politika zorrotza eta objektiboa da, eta hautagaien meritu akademiko, pertsonal eta profesionalak besterik ez dugu kontuan hartzen, bai eta BATZ Groupen beharrak ere.

BATZ Groupen prestakuntza-programek aukera-berdintasuna eta lan-ibilbidea garatzeko berdintasuna bermatzen dute, eta aktiboki laguntzen dute Taldearen xedek lortzen. Era berean, lan-esparruan gora egitea Pertsonen merituaren, gaitasunean eta norbere lanean oinarritzen da.

Aurrekoaren arabera, espresuki konprometitzen gara inor ez diskriminatzera bere arraza, erlijio, sexu, nazionalitate, sexu-orientazio, generoidentitate, egoera zibil, desgaitasunagatik edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozein arrazoigatik.

Pribatutasuna, datu pertsonalen erabilera eta konfidentzialtasuna

BATZ Groupek Pertsonen intimitate-eskubidea errespetatzen du, eskubide horren baitako adierazpide guztietan, hala nola Internet eta gainerako komunikabideen bidezko Pertsonen komunikazio pertsonalak. Bereziki, datu pertsonalen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuko dira. Datu pertsonalak soilik eskuratuko dituzte enpresako langile jakin batzuek, behar bezala baimenduta eta Konfidentzialtasun Akordioa sinatuta.

Ondorioz, BATZ Groupek konpromisoa hartzen du datu pertsonalak ez zabaltzeko, salbu eta interesdunek baimena ematen badute eta legeak agintzen duenean edo ebazpen judizial edo administratiboak bete behar direnean. Datu pertsonalak inola ere ez dira erabiliko legeak edo kontratu bidez aurreikusitako xedeen bestelako helburuetarako.

KOMPROMISOA INGURUNEAREKIN

Ingurumena

BATZ Groupek konpromisoa dauka bere Jardueraren ingurumen-inpaktua minimizatzeko. Hori dela eta, ingurumenkudeaketarako sistemak ditugu, legeria betetzen dela eta prozesuen etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

Pertsonak, nork bere eskumenen esparruan, ahalegina egin beharko dute BATZ Groupek haien eskura jarritako instalazioen, aktiboen eta baliabideen erabilaren ondoriozko ingurumeninpaktua minimizatzeko, eta aktiboki eta modu arduratsuan egin behar dute ingurumenaren kontserbazioaren alde. Bereziki, (i) Ingurumenari buruz haien lantokian indarrean dauden arauak, aginduak eta prozedurak ezagutu eta bete behar dituzte, eta (ii), norbere ardurapeko arloan eta BATZ Groupen politikekin bat eginda, ahalegina egin behar dute ingurumen-ikuspegitik instalazioetako baldintzak hobetzeko eta ingurumenarekin loturiko kontuak eraginkortasunez kudeatzeko.



Bizimodu osasungarria

BATZ Groupek bizimodu osasungarria sustatzen du enpresako Pertsonen artean, bereziki lan-prebentziorako zerbitzuaren eta OSHAS 18001:2007 ziurtagiriaren bitartez.

BEZEROAK ETA HORNITZAILEAK

BATZ Groupek, bere hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, iraunkortasunean eta erantzukizun sozialean oinarrituriko printzipioak aplikatzen ditu, eta jardunbide sozialki arduratsuen aplikazioa sustatzen du erakundearen hornidurakatearen bitartez. Pertsona guztiek, hornitzaile eta bezeroen hautaketa-prozesuetan, kalitate-, egokitasun-, kostu- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatu beharko dituzte, betiere BATZ Grouparen interesen alde eginda. Betebehar hori bereziki bete behar dute hornidura eta zerbitzuen kontratazioari buruzko erabakiak hartu behar. Dituztenek, bai eta Bezeroekin egin beharreko eragiketen baldintza ekonomikoak erabakitzen dituztenek ere.

Hornitzaile, Bazkide eta Bezeroekin izan beharreko harremanetarako, aplikagarria da Jokabide Kode honen 5.3. atalean ezarritako Ustelkeriaren Kontrako Politika.

INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

BATZ taldeko Pertsonen lan-jardueran sorturikoinformazioa (teknikoa, finantzarioa, komertziala, etab.) BATZ Grouparen jabetzakoa da, eta, ondorioz, babestu egin behar da. BATZ Grouparen jabetzakoa ez dena legezko xedapenen arabera baliatu beharko da.

BATZ Groupek duen publikoaz besteko informazioa, dela euskarri informatikoan, dela beste edozeinetan, oro har Informazio Konfidentzialtzat joko da. Hortaz, BATZ Grtoupleko Pertsonak sekretu profesionalaren printzipioa errespetatu beharko dute.

INDUSTRIAL – INTELEKTUALAREN BABESA. ENPRESAREN AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ARDURATSUA

BATZ taldeko Langileek garaturiko jabetza industrial edo intelektual babestu beharreko ondarea da, eta ondo erabili beharrekoa.

BATZ Groupeko Pertsonak beren lan-eginkizunak bete bitartean sortzen diren jabetza intelektualaren, industrialaren eta enpresasekretuen ustiapen-eskubideak BATZ Groupen jabetzakoa izango dira.

Era berean, errespetatu egingo dira jabetza intelektual eta industrialari dagozkion eskubideak (egile-eskubideak, patenteak, erabilgarritasunmodeloak, industria-diseinuak, markak, domeinuizenak eta gainerako eskubideak), bai eta BATZ Grouparekin harremanetan dauden Bezeroen edo beste edozein hirugarrenen enpresa-sekretuak ere.

Pertsonen eskura jarritako aktiboen eta baliabideen erabilera okerrak edo zuhurtziagabeak arrisku larria dakarkie BATZ Groupi eta berau osatzen duten Pertsonari. Hori ekiditeko, BATZ Groupek segurtasun informatikoa babestu eta baimendu gabeko softwarea erabiltzea debekatzen du. BATZ taldeko Pertsonak ez dute instalatuko eta erabiliko BATZ Grouparen ekipo informatikoetan software gaiztoa, ez eta legez kanpoko beste edozein programa edo aplikazio informatikorik ere, zeinak ez duen dagokion erabilera-lizentzia ofiziala edo BATZ Grouparen edo hirugarrenen sistema informatikoen segurtasunerako edozein osagai arriskutsu sartzeko arriskua eragin dezakeen.

BATZ Groupek bertako langileen eskura jartzen ditu beren jardura betetzeko beharrezko aktibo eta baliabideak. Pertsona bakoitzaren ardura izango da baliabide horiek zaintzea, hala nola haien sarbide-pasahitzak kudeatzea, horretarako garaturiko Protokoloak aplikatuta. BATZ taldeko Pertsonen ardura da, halaber, jasotako bitarteko informatikoa behar bezala erabiltzea, ez dezaten kalterik eragin besteren ondasunetan, esaterako, datu, programa edo dokumentu informatikoa baliogabetu edo ezabatu.

BATZ GROUPEN IRUDIAREN ETA OSPEAREN SUSTAPENA

BATZ Groupek ospe handia dauka, bere eskarmentu handiari eta talde tekniko eraginkor eta leialari esker, Taldearen kultura osatzen duten Balioekin, Printzipio Etikoekin eta ezagutzarekin konprometitua.

Pertsona guztiek, beren lan-jardura guztietan, ahalik eta arreta handienaz zaindu behar dituzte BATZ Grouparen irudia eta ospea. Era berean, bermatu egingo dute Hornitzaileek, Bazkideek eta Bezeroek zuzen eta egoki erabiltzen dituztela irudi eta ospe korporatiboa.

Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen Garapen Iraukorrako Helburuekin



11. USTELKERIA ETA EROSKERIA

Agintariekin, Erakunde Arautzaileekin eta Herri Administrazioekin izan beharreko harremanak lankidetzaz eta gardentasun-printzipioetan oinarrituko dira.

BATZ Groupek Herri Administrazioekin dituen betebeharrak beteko ditu, bereziki Herri Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta diru-laguntzak ematen dizkiotenekin.

Ustelkeria

BATZ Group ustelkeria-mota ororen kontra dago, bai eta etekin edo abantailaren bat lortzeko BATZ taldetik kanpoko pertsonengan legez kontra eragitearen aurka ere. Estortsioa eta eroskeria espresuki debekatuta daude, legez kanpoko edozein abantaila-mota zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitzematea barne, eta influentzia-trafikoa ere debekatuta dago.

Atal honetan ezarritako debekuek dagokion norbanako, agintari edo funtzionario publikoarekin ahaidetasunak edo adiskidetasunak hertsiki loturiko pertsoneri ere eragiten diete.

Opari-politika

Oparien xedea da BATZ Grouparen markairudia sustatzea. BATZ Group osatzen duten zuzendariak eta gainerako Pertsonak ezingo dituzte eman, eskatu edo onartu, zuzenean edo zeharka, opariak, gonbidapenak, mesedeak edo ordainak, eskudirutan edo espezieetan, edozein motatakoak izanda ere, legez kanpoko edo gure Jokabide Kodearen kontrako helburuak lortzeko.

Diru-laguntzak

BATZ Groupeko edozein sozietateren dirulaguntza eskaerak Taldeko Finantza Sail Korporatiboak gainbegiratuko ditu beti, araudia zuzen betetzen dela egiaztatzeko, kudeaketarako kanpo-aholkularitza jasota, eta diru-laguntzak egoki zuzitzen direla ziurtatzeko, kanpo-ikuskapenen bitartez.

Herri Administrazioei eskatutako edo haietatik jasotako laguntzak egoki erabiltzen direla bermatuko da, haiek lortzeko baldintzak faltsutu edo xede zuten helbururako ez beste baterako erabili gabe.

Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako prebentzioa

BATZ taldeak kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren gaineko estatuko eta nazioarteko legeriak beteko ditu, aplikagarri zaizkionak.

Horri begira ezarritako bezeroak ezagutzeko, informaziorako eta barne-kontrolerako neurriak aplikatuko dira, eta ahalik eta laguntza handiena emango zaie agintaritzaz eskudunei.

Delituzko edo legez kanpoko jardueretatik eratorritako kapitalak zuzitzeko edo terrorismoa finantzatzeko eragiketak egin daitezkeen prebenitzeko eta saihesteko, Pertsonak arreta bereziz prebenitu beharko dituzte aipatu legez kanpoko ekintzekin lotuta egon litezkeen jokabideak.

Interes gatazkak

BATZ Grouparen aburuz, enpresa osatzen duten Pertsonekin izan beharreko harremana leialtasunean oinarritu behar da, enpresan denek dituzten interesetatik eratorritako horretan. Ondorioz, Pertsonak Interes Gatazka oro ekin behar dute.

Jarduera politikoa

BATZ Groupeko edozein Pertsonak du eskubidea bere izenean kontu politikoetan parte hartzeko, baina beraren partaidetza politikoak ez du inolako loturarik izango BATZ Grouparekin.

BATZ Groupeko inolako sozietatek ezingo ditu legez kanpo finantzatu ez hautagai politikoak, ez eta alderdi politikoak ere.

Erabat debekatuta dago jatorri publikoko funtsak eta kredituak eskuratzea BATZ Groupeko Finantza Zuzendaritzaren aurretiko baimenik gabe.

***Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen
Garapen Iraukorrako Helburuekin***



12. GIZARTEA

Mende erdi baino gehiago igaro da BATZ enpresak sozialki arduratsua eta ekosistema osoarekin konprometitua izateko konpromisoa hartu zuenetik. Etorkizuna arriskuan jarri gabe, egungo beharrei erantzuten dien industria-taldea da. Baina, batez ere, kooperatiba gisa sortu zen proiektua, ingurunearen eraldaketa sozioekonomikorako errotzearekin eta konpromisoarekin, hedapena eta mundu-mailako izaera uztartzen jakinda. Izan ere, horixe da gure konpromisoa eta erantzukizuna, gauden herrialdean gaudela.

12.1 GURE INGURUAN ABERASTASUNA SORTZEN

Garapen ekonomiko eta sozialerako ekimenak sustatzen ditugu, integratuta gauden komunitateak errespetatuta. Gainera, munduko hainbat tokitan egoteak pertsonen prestakuntza nahiz trebakuntza sustatzen du, zuzenean zein zeharka, eta gure ingurune hurbileko jarduera ekonomikoa bultzatzen. Gure ustez, harro egoteko modukoa da gure ekimenak garapen jasagarriaren 2030 agendan zehaztutako helburuekin bat etortzea.



BATZ Group gizarte-ekimen eta kolaborazio batzuk	
Kultura eta kirolarekiko konpromisoa	Kirola eta kulturarekin lotutako ekimenak bultzatzen ditugu, kultura- eta kirol-jarduerak babestuz eta antolatuz.
Laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko konpromisoa	Laneko eta familiako bizitzaren bateragarritasuna bultzatzen dugu, ez bakarrik gure barnetalentuari dagokionez, baizik eta kanpoko ekimenetan ere parte hartuz; adibidez, Denbora sareak eta Novia Salcedo Fundazioak antolatutakoetan.
Gizarte eta laneko integrazioarekiko konpromisoa	• Behargintza • Beharbide • Bizkaia Talent • Novia Salcedo Fundazioa • Mundukide • Gure Señeak Elkartea (ez-ohizkoak gaixotasunak) • ADENBI, Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkartea • “Gazteleku” Komunitate Garapen Elkartea • “Dislebi” dislexia elkartea • Ezequiel Hernández Romo, Itsuentzako eta ikusmen urritasuna dutenentzako Institutua (Mx) • San Luis Potosi Estatuko Ospitale Nagusia (Mx)
Gure ingurunea garatzeko konpromisoa	Errota Fundazioa Egaz Txorierri
Beste batzuk	StopSanlilippo Fundazioari laguntzeko tapoi bilketa Txorierriko osasun-lasterketari sostengua

12.2 DIBULGAZIOA, BALIOA SORTZEKO MOTORRA

BATZen balioa sortzearen aldeko apustua egin dugu eta gure inguruaren garapena sustatzen dugu gure ezagutzak transferitzearen bidez, dela patenteen bidez, dela artikuluko teknikoak argitaratzearen bidez, sektore publiko-pribatu arteko akordioen bidez edo foroetan parte hartzearen bidez, besteak beste. Erabat uste dugu ezagutzaren komunikazioa ardatz erabakigarria dela garapen ekonomiko-sozialean.





2019an, BATZ Innovation Summit-en laugarren edizioa egin genuen, automobilgintzaren sektoreko profesionalentzako urteko ekitaldia, non fabrikazio aurreratuaren inguruko erronkak eta aukerak jorratu genituen, eta Automotive Intelligence Center, EIT-Manufacturing, Volkswagen, Gestamp eta Mondragon taldeek hartu zuten parte.

Gainera, laneko gosarietan parte hartu dugu, eta halakoak eta bisitak gure instalazioetan ere egin izan ditugu. Nabarmenezkoa da Txekiak Moravia eskualdeko agintariekin harremanak estutzeko eta sinergiak esploratzeko egindako lan bikaina.

Azkenik, BATZek bere jarduera-eremuan ordezkaritza handiena duten sektore-elkarteetan parte hartzen du, lan egiten duen herrialdeetan.

SEKTOREKO ELKARTEAK

Aeronautika

Hegan – Aeronautikako klusterra

Energia

Euskadiko Energia Kusterra

Automozioa

ACICAE - Euskadiko Automobilgintzaren Klusterra

Plastikoaren Espainiako Zentroa (CEP)

SERNAUTO

Automobilový klastr - Automotive Cluster of the Czech Republic.

Club of HR officers of the Moravian-Silesian Region membership.

12.3 ETORKIZUNEN PROFESIONALEN ALDE APUSTU EGINEZ

BATZen jarduerak egiten ditugu gazteek beren lehenengo lana lortu dezaten, baita gazteen artean dugun kokapena hobetzeko ere, gure misioa, ikuspegia eta balioak partekatzen dituzten gazteak erakartzeko. Zentzu honetan, enplegu arloko azoketan eta foroetan parte hartzeaz gain, edo gure instalazioetara ikustaldiak antolatu, BATZek lan handia egiten du talentuaren dibulgazioan eta garapenean, trebakuntza, berrikuntza eta gaitzeko programekin lankidetzan aritzen baita bera dagoen herrialde guztietan; Prestakuntza Dualarekin hasi eta Formula Student bezalako proiektuetara artekoak hartzen ditu, non ingeniartzako ikasleek auto monoplaza bat garatzen duten nazioarteko zirkuituetan lehiatzeko.

AKORDIOAK UNIBERTSITATEKIN ETA PRESTAKUNTZA-ZENTROEKIN

BATZ IGORRE		BATZ ZAMUDIO		BATZ MEXICANA	
•UPV-EHU •Mondragon Unibertsitatea •AIC •HETEL •Armeria Eskola •Zulaibar •Leartiker •Maristak Durango Ikastetxea •Salesianos	•Bidebieta Lanbide Heziketa •Zornotza •Elorrieta Erreka Mari •LHII Repélega •Mendizabala Institutoa •Emilio Campuzano Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua •Barrutialde Institutoa •IES Galdakao	•Txorierriko Eskola Politeknikoa •LEA Artibai Ikastetxea •Mondragon Unibertsitatea		•Tangamangako Unibertsitatea •San Luis Potosiko Unibertsitate Politeknikoa •Escuela Bancaria y Comercio (Banku eta merkataritza eskola) •UTEC - San Luis Potosiko Estatuko Unibertsitate Teknologikoa •San Luis de Potosiko Unibertsitate Autonomoa •UTEC Formación (automobilgintza) •ICAT (San Luis Potosiko estatuko trebakuntza-institutua)	
		BATZ CZECH			
		•Technical university in Ostrava : Vysoká škola báňská-Technická Univerzita			

FERIAK ETA ENPLEGU FOROAK	AZOKA	JEPE	LANBAI	Job & Talent day	IMH Ing dualako II. Enplegu Azoka	Kariéra Plus	Enplegu azokak
	ANTOLATZAILEA	UPV-EHU	Mondragon Unibertsitatea	AIC- Automotive intelligence Center	IHM Fabrikazio Aurreratu Zentroa	Ostravako Unibertsitatea (Txekia)	BATZ Mexicana, Unibertsitate Politeknikoa, Enplegu Zerbitzu Nazionala, Mexikoko Familiaren Lan eta Aurreikuspen Sozialeko eta Garapen Integraleko idazkaritza

12.4 HORNITZAILEEN GARAPENA

Gure hornitzaileekin lankidetza estuan aritzen gara, praktika arduratsua ezartzea sustatuz, jasangarritasuneko estandarrak hobetuz eta hornikuntza-kate osoaren etekina optimizatuz, gure produktuaren bizi-zikloko etapa desberdinetan zehar.



ERANTZUNKIDETASUNA, HORNITZAILEEKIKO HARREMANAREN FUNTSA.

BATZen gure hornikuntza-katearen gero eta inplikazio handiagoa nahi dugu balioa sortzeko.

Eta honek esan nahi du praktika erantzuleen printzipioa beraiek ere bete behar dutela.

Horretarako, erantzukizun sozial korporatiboa sartu dugu gure hornitzaileen panelean eta erosketen kudeaketan,

homologazio fase bakoitzean kontuan izateko; era berean, kontratu eta akordioetan berariaz sartu dugu praktika erantzuleekiko dugun jarrera.

LANKIDETZA KULTURA SUSTATU.

BATZentzat funtsezkoa da gure hornitzaileekin epe luzerako harremana izatea. Gure helburua da balizko arriskuak aukera bihurtzea, beraiekin lana eginez eta horrela ahultasun oro murriztu eta hornikuntza katean jarraikortasun eraginkorra ziurtatu.

BATZen ebaluazioa jarraitua egiten da hornitzaile bakoitzak (jada badirenak edo izan daitezkeenak) jasangarritasun, indar eta balizko ahulguneen alorrean duen eboluzioa ikusteko eta horren arabera homologatzen eta sailkatzen da hornitzailea. Ebaluazio honi esker, balizko arriskuak identifikatu daitezke eta hobekuntzarako neurriak eta baterako jardura-planak ezarri.

Horretarako, erantzukizun sozial korporatiboa gure hornitzaileen paneleko eta erosketen kudeaketaren homologazio fase bakoitzean kontuan hartzea erabaki dugu eta, era berean, erosketen eskuliburuan, kontratuetan eta akordioetan berariaz sartu dugu praktika erantzuleekiko dugun posizionamendua.

GARDENTASUNEAN OINARRITUTAKO HARREMANA

Gure hornitzaileekin gertutasuneko harremana sustatu nahi dugu eta elkarriketa jarraituak izan beraiekin, gure proiektuaren zati izan daitezen.

Horretarako zenbait bide ditugu, esaterako, praktika onen inguruko ekimenak eta alderdiak partekatzen diren ikustaldiak eta bilerak, galdetegiak eta hornitzaileen ataria, baldintza teknikoez eta kalitatezko estandarrez gain; horien bidez jakinarazten dira BATZen definituta ditugun negozio arduratsuko gutxieneko irizpideak. Ikusi Komunikazio kanalak 23. orrialdean.

TROKELGINTZA

2019an, proiektu anitzeko plangintzaren erronka estrategikoan hazi egin ginen, plangintza erritmikoa ezartzeko lan eginez, bai erosketako bai azpikontratazioko azpiprozesuetan orientabidea eta lana sustatuz. Gorabeherak biltzea lagungarria izan zen gure hobekuntza-ekintzak ardazteko, eta adierazle berriak sartu genituen horiek zaintzeko prozesuan.

Gure enpresa hornitzaileetan ikuskapenak egiten ari dira, gure kalitate-helburuak partekatzeko eta hornitzaileen autokontrolerako mekanismoak indartzeko.

AUTOMOTIVE SYSTEMS

Alde batetik, produktuaren diseinua egiteko ingeniariaren arloarekin dugun lankidetzaren sendotu dugu, erosketaren osagaien estandarizazioa eta osagai komertzialen erabilera bultzatuz, produktuaren egingarritasuna diseinuaren fase goiztiarretan landuz eta diseinuak optimizatuz, kostuak murriztera eta egingarritasunera bideratuta.

Elektronikako ingeniari-taldearekin batera, tokiko hornitzaileen panelak garatu ditugu, Europan eta Asian, elektronika osatzen duten erosketen azpifamilia guztietan. Produktuari eta merkatuari buruzko ezagutza gureganatuta, produktu mekatronikoen garapenean lagundu dugu.

Azkenik, erosketako barne-prozesuak hobetzeko, adierazle nagusiak berrikusi eta automatizatu egin ditugu. Era berean, erosketetako azpiprozesu nagusiak birdefinitu ditugu, mundu-mailako erosketen taldearen koordinazioa eta eraginkortasuna errazteko.

Trokeltzintza

843 hornitzaile

JATORRIA

%95 Europa

%5 Bestelako herrialdeak

Automotive Systems

265 hornitzaile

JATORRIA

%60 Europa

%30 Asia

%10 NAFTA

Ekimen hauek bat datoz Nazio Batuen Garapen Iraukorrako Helburuekin



12.5 INFORMAZIO FISKALA

LORTUTAKO IRABAZIAK HERRIALDEKA

Ez da herrialdekako informaziorik eskaintzen, taldearen merkataritza-jardueran eragina izan dezakeelako.

ORDAINDUTAKO MOZKINEN GAINEKO ZERGA

Ordaindutako mozkinen gaineko zergen zenbatekoa 488 mila eurokoa izan da 2019ko ekitaldian.

JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK

Itzuli ezin diren diru-laguntzen zenbatekoa 744 mila eurokoa izan da 2019ko ekitaldian.

ERANSKINA I

11/2018 legearen eta GRI erreferentzia-esparruaren arteko trazabilitatea

11/2018 LEGEAK ESKATZEN DUEN EDUKIEN INDIZEA	GAIA	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA
Negozio eredua	Taldearen negozio ereduaren azalpen laburra	GRI 102-1, 102-2, 102-3, 102-4, 102-6, 102-7, 102-14, 102-15
Orokorra	Reporting esparrua	GRI 102-54, 102-46, 102-47
Kudeaketaren ikuspegia	Aplikagarriak diren politiken azalpena	GRI 103-1
	Politika horien emaitzak	GRI 103-3
	Gai horiekin zerikusia duten arrisku nagusiak, taldearen jardueren lotutakoak	GRI 102-15
Ingurumenaren kudeaketa	Enpresak ingurumen-jardueraren eta, hala badagokio, osasunari eta segurtasunari buruzko jardueraren gaur egungo ondorioak eta aurreikusi daitezkeenak	GRI 307-1, 308-2
	Ingurumen-ebaluaziorako edo egiaztapenerako prozedurak	GRI 103-2, 308-1, ISO 14001
	Ingurumen arriskuak prebenitzeko baliabideak	GRI 103-3
	Arreta-printzipioaren aplikazioa	GRI 102-11
	Ingurumen-arriskuetaarako bermeak eta hornidura kopurua	GRI 103-3
Kutsadura	Karbono emisioak prebenitzeko, murrizteko edo konpontzeko neurriak (zarata eta argi-kutsadura ere, barne)	GRI 305-1, 305-2, 305-3, 305-4, 305-5, 305-6, 305-7
Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa	Prebentzio-neurriak, birziklatzea, berrerabiltzea, hondakinak berreskuratzeko eta ezabatzeko beste modu batzuk	GRI 301-2, 301-3, 306-1, 306-2
	Elikagaiak alferrik ez galtzeko ekintzak	GRI 103
Baliabideen erabilera iraunkorra	Tokiko mugaketen arabera ur-kontsumoa eta hornidura	GRI 303-1
	Lehengaien kontsumoa	GRI 301-1, 301-2
	Bere erabileraren eraginkortasuna hobetzeko hartu diren neurriak	GRI 302-4, 302-5
	Energia kontsumoa (zuzena edo zeharkakoa)	GRI 302-1, 302-2
	Energia-eraginkortasuna hobetzeko hartu diren neurriak	GRI 203-1, 302-1, 302-4, 302-5
	Energia berriztagarrien erabilera	GRI 302-1, 302-2
Klima aldaketa	Enpresaren jardueraren ondorioz sortutako berotegi-efektuko gas-emisioen elementu garrantzitsuak	GRI 305-1, 305-2, 305-3, 302-5
	Klima aldaketaren ondorioetara egokitze hartu diren neurriak	GRI 201-2
	Epe ertain eta luzera berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko borondatez ezarritako murrizketa-xedeak, eta xede horretarako ezarri diren bitartekoak.	GRI 305-5

11/2018 LEGEAK ESKATZEN DUEN EDUKIEN INDIZEA	GAIA	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA
Biodibertsitatearen babesa	Biodibertsitatea zaintzeko edo berreskuratzeko hartu diren neurriak	GRI 304-3
	Babestutako eremuetan egindako jarduera edo eragiketen inpaktua	GRI 304-2, 303-2
Enplegua	Langileen kopuru osoa eta horien banaketa herrialde, sexu eta adinaren arabera	GRI 405-1
	Langileen kopuru osoa eta horien banaketa lanbide-kategoriaren arabera	GRI 401-1
	Lan-kontratuen modalitateen kopuru osoa eta horien banaketa	GRI 401-1
	Kontratu modalitate bakoitzeko (mugagabeak, aldi baterakoak eta lanaldi partzialekoak) urteko batez bestekoa, sexu, adin eta lanbide-sailkapenaren arabera	GRI 401-1, 405-1
	Kaleratze kopurua, sexu, adin eta lanbide-kategoriaren arabera	GRI 401-1
	Soldata-aldea	GRI 405-2
	Lanpostu berdinengatik jasotako ordainsaria edo sozietatearen batz beteko ordainsaria	GRI 405-2
	Sailburuen batez besteko ordainsaria, sexuaren arabera	GRI 102-35, 102-38
	Zuzendarien batez besteko ordainsaria, sexuaren arabera	GRI 102-35, 102-38
	Lan-deskonexioko politiken ezarpena	GRI 401-2, 401-3
	Ezgaitasunen bat duten langileak	GRI 405-1
Lanaren antolaketa	Lan-denboraren antolaketa	GRI 401-2, 401-3
	Absentismo ordu kopurua	GRI 403-2
	Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak eta bi gurasoek erabiltzea bultzatzea	GRI 401-2, 401-3
Osasuna eta segurtasuna	Laneko osasun eta segurtasun baldintzak	GRI 403-2, 403-3, 403-4
	Lan-istripuen kopurua, sexuaren arabera	GRI 403-2, 403-3, 403-4
	Maiztasun-tasa, sexuaren arabera	GRI 403-2
	Larritasun-tasa, sexuaren arabera	GRI 403-2
	Gaixotasun profesionalak, sexuaren arabera	GRI 403-2
Harreman sozialak	Gizarte-elkarriketaren antolamendua, langileei informatzeko eta kontsultatzeko eta haiekin negoziatzeko prozedurak barne	GRI 402-1, 403-1, 403-4
	Hitzarmen kolektibo bitartez estalitako langileen ehunekoa, herrialdeka	GRI 102-41
	Hitzarmen kolektiboen balantzea, bereziki laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan	GRI 102-41, 403-4
Prestakuntza	Prestakuntzaren arloan ezarri diren politikak	GRI 404-2
	Lanbide-kategoriaren arabera prestakuntza-orduak guztira	GRI 404-1
	Ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsala	GRI 405-1

11/2018 LEGEAK ESKATZEN DUEN EDUKIEN INDIZEA	GAIA	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA
Berdintasuna	Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna sustatzeko hartu diren neurriak	GRI 401-3, 405-1, 405-1
	Berdintasun-planak, enplegua sustatzeko hartu diren neurriak, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloak	GRI 103-2, 405-1
	Ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsala eta integrazioa	GRI 405-1
	Diskriminazio mota ororen aurkako politika, eta, hala badagokio, aniztasuna kudeatzeko politika	GRI 103-2, 406-1
Giza eskubideak	Giza eskubideen arloan behar adinako arreta-prozedurak aplikatzea	GRI 103-2, 412-2
	Giza eskubideak urratzeko arriskuen prebentzioa eta, hala badagokio, egindako gehiegikeriak arintzeko, kudeatzeko eta onbideratzeko neurriak	GRI 412-2
	Salaketak, giza eskubideak urratzeagatik	GRI 406-1
	NLEren funtsezko hitzarmenen xedapenen sustapena eta betetzea, erakundearen askatasunarekiko errespetuarekin eta negoziazio kolektiborako eskubidearekin zerikusia dutenak	GRI 407-1, 408-1, 409-1, 410-1
	Enplegu eta okupazioko diskriminazioa ezabatzea	GRI 405-1
	Nahitaezko lana ezabatzea	GRI 409-1
	Haurren lanaren abolizio eraginkorra	GRI 408-1
Ustelkeria	Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko neurriak	GRI 205-1, 205-2, 419-1
	Kapitalak zuritzearen aurka borrokatzeko neurriak	GRI 205-2, 419-1
	Fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenak	GRI 201-1, 413-1
Enpresaren konpromisoak garapen iraunkorrarekin	Gizartearen jardueraren inpaktua enpleguan eta tokiko garapenean	GRI 102-42, 102-43
	Gizartearen jardueraren inpaktua tokiko herrietan eta lurretan	GRI 411-1, 413-2
	Tokiko komunitateetako aktoreekin izandako harremanak, eta horiekin elkarriketak izateko moduak	GRI 102-43
	Elkartzeko edo babesle izateko ekintzak	GRI 203-1, 102-12, 102-16, 102-13
Azpikontatzaioa eta hornitzaileak	Erosketa politikan gizarteari, genero-berdintasunari eta ingurumenari buruzko gaiak sartzea	GRI 102-9, 308-1, 414-1
	Hornitzaileekin eta azpikontatatzaileekin izandako harremanetan, horien gizarte eta ingurumen arloko erantzukizuna kontuan hartzea	GRI 102-9, 414-2
	Gainbegiratzeko sistemak eta auditoretza eta horien emaitzak	GRI 308-1, 407-1, 408-1, 409-1
Kontsumitzaileak	Kontsumitzaileen osasunerako eta segurtasunerako neurriak	GRI 416-1, 416-2
	Erreklamatzeko sistemak	GRI 416-2, 418-1
	Jasotako kexak eta horien ebazpena	GRI 103-2, 416-2, 417-2
Informazio fiskala	Lortutako irabaziak herrialdeka	GRI 201-1, 201-4, 413-1
	Ordaindutako mozkinen gaineko zergak	GRI 201-1, 201-4
	Jasotako diru-laguntza publikoak	GRI 201-4

BATZGROUP

Torrea, 2 - 48140 IGORRE // T: (+34) 946 305 000

